

uk

238. zenbakia / 2013ko irailaren 23a



egizu.org

**URRIAREN
7 & 9an
KLASEAK
ALDAI
PATRONATUAN**

**YOGA ikastaroa
EUSKARAZ
URRITIK EKAINERA**

NOIZ: ASTELEHEN & EGUAZTENETAN (urriaren 7an hasita)
ORDUTEGIA: 19:30 - 21:00
NON: SAN NIKOLAS ikastolan (Algorta)
PREZIOA: HILEAN 30 € / 25 € Berbalagun, Bizarra
Lepoaneko bazkide eta ikastolako kideek
IZENA EMATEKO: egizugetxo@gmail.com /
616 885 165

egizu!

www.renault.es / 902 333 500

**RENAULT CAPTUR
HARRAPATU BIZITZA**

RENAULT QUALITY MADE **WORLD CHAMPION ENGINE** Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4ra. CO2 isuria (g/km) 96tik 125era. Renault gogoratzen du **elf**

DRIVE THE CHANGE **RENAULT**

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Armando Llamosas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Ander Egluz, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Errusiako ballet-dantzariak Areetan.
6. FACEGUK. Eraginik izan du krisiak oporrak gozatzeko orduan?
7. LEHEN ETA ORAIN. Barrika.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Mikel Ayala Larrañaga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Ur-kiroletako jolasak Getxon.
28. ARGAZKIA. Askana baserria.
30. BERBETAN. Tomas Urzainqui.
34. FOTOGRAFIA. Mikel Martin Villacorta.
40. SAKONEAN. Galeako fortea, zaharrak barri.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Amaren eskuak filma.
43. MUSIKA. Inkestas Rock-festivala.
44. LIBURUAK. Balendin Enbeita bertso-paper-lehiaketa.
45. KIROLAK. Olatz Ortega arraunlaria.
46. MUNDUKATUAK. Iker Saitua.
47. JENTILKOKA. Mikolasak.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Txokolate-magdalenak.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Hirukoiztarren eliza handitzeko batzordea, 1966.
54. AITORMENAK. Iraia Iturregi futbolaria.

Azala: Mikel Martin Villacorta


www.ukaldizkaria.biz



30 Tomas Urzainqui

Berbetan

Historialari eta jurista nafarrak Nafarroako (des)konkistaz hainbat egia azaleratu dizkigu.



11 Mikel Ayala



54 Iraia Iturregi

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

K.Olate

Euskaltel = Euskadi

Euskaltel-Euskadi txirrindulari-taldea urtearekin desagertuko dela jakiteak nahigabetuetakoa naiz. Migel Madariagak, ia bi hamarkadaz hamaikatxo atakatan zehar onik ateratako proiektua amildu egin da azkenean arazo ekonomikoen izenean, beste hainbat eta hainbat proiektu eta egitura amildu diren moduan.

Umetatik miretsi izan dut txirrindularien ahalegina; karrerista batzuk kuttunagoak izan ditut –bere sasoiari, Loroño, oraintsuago, Marino–; taldeei dagokienez, izan dira gutxi-asko gertukotzat jo nitzakeenak –KAS, Fagor edo Reynolds, esaterako–, baina ez dut talde kuttunik izan harik eta laranz jantzitako koadrila heldu zen arte; orduetik, berriz, orban laranz arakatu izan ditut telebistaren pantailako txirrindulari saldoan, eta ikuskizunari buruzko nire interesa ere haien kokapenaren eta aukeren arabera izan da gehienetan: zelango dezepzioa orban laranz tropeletik atzera geratzen nekuskienean, zelango urduritasuna haietakoren bat garaipenerako borrokan sartu den bakoitzean, zelango zoramena elastiko laranja bat besoak gora helmuga zeharkatzen ikusi ahal izan dudana apurretan!

Ez naiz, dena dela, xarmadura laranz liluratu duen bakarra, taldearekiko nahitasuna eta atxikimendua ernatzea izan baita (Xabier Usabiaga txirrindulari ohi eta esatari oparo bezain zehatzarena da gogoeta) Euskaltel-Euskadik ziklismoari egin dion ekarpen berariazkoena. Proiektuaren oinarrian zegoen “geuretasuna” –euskal txirrindulariz osatutako taldea– baliatzen jakin zuen “geure” telefonia enpresak kirol-taldea bere irudi-estrategiaren ardatz bihurtzeko eta, bide batez, taldearen jarraitzaileak babeslearen bezero bilakatzeko, hori baita, azken batean, edozein kirol patrozinioren xedea. Bete-betean asmatu zutelakoan nago, limurtzen errazak baikara edozein koketletan “geuretasun” txorrotada egokia jartzen badigute.



Euskaltel-Euskadirena bukatzea doa, ordea: “geure” talderik gabeko tropelera ohitu beharko dugu datorren denboralditik aurrera. Ez gaitezen, hala ere, ezkortasunean murgildu, sasoiak baitirau askorentzat –tartean, nonbait, gure biloba txikiarentzat– “geuretasunaren” ikur behinena den kirol taldeak. Biloba ekarri dut hizpidera,

lehenagoan, balkoi batetik eskegitako ikurri- eskutxoaz erakusten zuela, “Athletic!” zezelkatzen entzun nuelako; alferreko lana iruditu zitzaidan heldu askok ere bereizten ez duten kontua haurrari argitzen saiatzea eta umea bakean uztea erabaki nuen, behintzat ikurrinaren aurrean “Petronor!” esaten hasten ez den bitartean. ○

gu geu

Ondoetorriak eta agurrak

Ondo etorri ikasturte barria, udagoiena (ofizialki ez bada ere...), oporrak ahaztu dituztenak, langile “gogotsuak”, UK-ko kolaboratzaile barriak... a! Eta ondoetorria egin gura genioke irailari!

Ostera, agurrik beroenak ere banatu beharrean gaude; laster arte udatarrei, gero arte udari, hurrengora arte oporrei... Eta bereziki UK-ko bihotz-bihotzetik esperantzaz betetako “hurren arte!” ederrena urte hauetan danetan bere umore zein salaketa irudiak eskaini dizkigun Dogan Gozel “Keko” UK-ko marrazkilaria kurduari. Eskerrik asko eta inguruotara zatozenera arte, Dogan!

UK-z agurtzeaz gainera, margozteko tinta erabiltzeari ere agur esango ei dio, hobeto ordaindutako lan barriak hala eskatzen diolakoan... Denbora aurrera doa, aldatuz goaz... Esan ohi dugun legez: “Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea...”

Besarkadarik beroena Kurdistanera!

UK-ko lan-taldea



AREETA, 2013KO IRAILA

Gorteiatzea / Urrunetik behatu, apurka hurbildu, begiradak trukatu, dantzatzera gonbidatu, estutu...

Gorteiatzeko manera polita izan da beti dantza. Berau erakutsi zuten, hain zuzen ere, Errusiako Ballet Handiko dantzari hauek Areetan: irailaren 11n eskaini zuten ikuskizuna Geltokia plazan. Ballet honek 30 urte baino gehiago dauka eta Ivan Gromakov koreografoak zuzentzen du, eta sari garrantzitsuak lortu ditu. Gainera, UNESCOk Errusiar Herriaren Kulturaren eta Ondarearen Lehenengo Zabaltzaile izendatu du. Irudi benetan dibertigarria utzi ziguten Areetan. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Eraginik izan du krisiak oporrek gozatzerako orduan?



Gorliz

Aitor Vela

> **tabernaria**

Lana galdu nuen eta tabernari hasi nintzen, lanegun erdian. Diru gutxiago izanda beste modu batean aprobetxatu behar izan ditut oporrek eta hemen geratu naiz: jaietan, hondartzetan eta bertako bazterrak ezagutzen. Desberdina izan da, baina polita.



Erandio

Gontzal Sellan

> **tranbia-gidaria**

Lanean egonda ere krisia nabaritu egiten da eta lehen baino gehiago fijatu behar izan dut prezioetan. Ondo moldatu naiz azkenean, baina hemen geratu naiz, beste inora joan beharrean.



Gorliz

Susana Bilbao

> **langabea**

Asturiaseko kanpin batera joan naiz familiarekin, urtero bezala, baina bi aste joan beharrean aste bakarrarekin konformatu behar izan dugu. Furgonetaz bidaiatu dugu eta guk geuk sukaldatu dugu egunero, kanpoan jan beharrean. Ondo moldatu gara, baina egoera nabaritzen da.



Gorliz

Gaizka Zabala

> **erizain-laguntzailea**

Nik, gaztea izanda, ez dut gurasoek beste nabaritu, baina oporretan joatean jende gutxiago zegoela ikusi dut. Jaietan egia da gutxiago kontsumitu dudala eta, adibidez, ferra osteko bokata gutxiago hartu ditut.



Getxo

Rocio Irigoyen

> **langabea**

Langabezian egonda ezin diru askorik gastatu eta senide baten etxera joan naiz Malagara. Horrela bidaia eta erosketak baino ez ditut ordaindu behar izan. Eta bertan plan merkeak egin ditut: hondartzara joan eta lo-kuluxkak.



Gorliz

Arantza Ceballos

> **langabea**

Kanpinera joan naiz aurten, Nafarroara, hurbilago dagoelako eta merkeagoa delako. Diru gehiagorekin agian hotelera joango nintzatekeen baina moldatu behar eta oso ondo pasatu dut Urederran, mendian, ibilaldiak egiten, e. a.



Iraganez doa denbora* beti / BARRIKA

* **Denbora:** gauzak gertaitzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > sareak



Goienetxe, 2013ko iraila

Testua: **Jone Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Trumoa ortzi beltzean hoska

Bide estuan ihesi doa
oinezko baten ilusioa
badu mezu bat ondoko herrira
iristeko desioa...
Hortik sortu zen, esaterako
maratoin pasioa,
mezularien zioa,
garai batean hala zabaltzen
zuten informazioa.

Denbora ez zen izaten kalte
mezularien lana bitarte,
baina distantzi laburrak ere
bihur zitezkeen kate.
Nahiz guretzako Berango eta
Getxo egon atez ate
orduaz zeuden aparte
hitzek kabletan bidaiatzea
posible bihurtu arte.

Teknologian zenbat idea
ustez mundu hau denez librea
pentsatu gabe ekar lezakeen
ondorio posiblea...
Txiki geratu zitzaizkigunez
hasteko errepidea,
gero kablezko bidea,
informazio sare erraldoi
bihurtu dugu airea.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

æk
Euskara praktikoa
URIBE KOSTAKO AEK
94 430 47 34
laudaxeta@æk.org

- Euskalduntze ikastaroak
- HABEren mailak egiaztatzen azterketa ofizialak
- 4. Maila
- Mintzataldeak

Garena ikasteko
pila errendimena
pour se comprendre



Hilaren 28an, zapatua, izango da

senidetze-jaia > Euskal Herria Eguna Lizarran

Iaz Algortan ospatu legez, aurtun Lizarran egingo dute Euskal Herria Eguna irailaren 28an. Oro har, Ibarra, Lizarra eta Algorta herrien eta, garrantzitsuena, herri-tarren senidetze-jaia da, antolatzaileen esanetan: “Nazio bat gara” pankartetatik, “lurraldetasuna” oihukatzen duten karteletatik haratago, harreman-sare baten bitartez hainbat lurraldetako errealitateak ezagutu nahi genituen, guk haiek, haiek gu,

elkarlanaz Euskal Herria aldarrikatuz. Baina hau gure helburua soilik ez denez, gonbidapena zabaldu genien herriko taldeei, herrikoia baita, zabala eta anitza, beharrezko oinarriak sendotasuna eta indarra izateko...”. Hala, harrera Lizarrako gaztetxean izango da 10:30ean, jokoak, herribazkaria, kalejira eta kontzertuak (22:00) e.a. egongo dira. ○

Info+: www.eheguna.net

euskaltzaleen festa > TopaEguna Soraluzen

Euskara elkarteak batzen dituen Topa-guneak eta, kasu honetan, Deba bailarako euskara-elkarteek TopaEguna, “euskaltzaleen jai-eguna” prest dute irailaren 28rako. “Euskal Herri osoan elkarteetan antolatuta dauden euskaltzaleen festa eguna, elkar ezagutza eta trukerako eguna izatea nahi dugun”, adierazi dute. Egitarau oparoko ekitaldi batzuk haiek dira: jaia 11:00etan hasiko da, gero Jon Sarasuaren liburu-aur-

kezpena (12:00) egongo da, ordurako prest egongo dira Umeen hiria, Berba-probak, Andrabanda feminista, Kantu-Jira, puzgarriak e.a. Herri-bazkariaren ostean, Irien Lagunak, Kultur Gindak eta hezitzaileen arteko jolasakaz gozatzeko aukera egongo da, eta ekitaldi nagusiaren (18:00) ondoren, Xero Xiette taldearen erromeria (19:00), eta Kokein eta Gose-ren kontzertuak (22:30) egongo dira. ○



Hilaren 28an, zapatua, izango da



Urriaren 4an hasi eta 5ean amaituko da

martxa > Plentziatik Erandiora

Ernai gazte erakundeak Plentzian hasi eta Erandion amaituko den UK martxa antolatu du, “Merezi duelako, erdu borrokara!” lelopean urriaren 4rako eta 5erako. Plentzian izango da harrera-ekitaldia arrastiko 18:00etan eta ibilaldiaren ostean Sopelan gaueko 21:00etan lantegiak eta berbaldiak eskainiko dituzte. Hurrengo egunean, gosaldurako ostean, 09:00etan abiatuko da martxa Sopelatik Algortarantz,

geldiunetxoa eta gero Romon egitasmo txikitzaileen edota fracking metodoaren inguruan jarduteko aukera izango dute. Ostera, Leioara heldu beharko dute bazkal ordurako eta arrastiko 19:30erako Erandiorainoko bidea egin. Han bertan, gauean jai egiteko aukera egongo da, izan ere, Kale Zulo gaztetxean, besteak beste Guda dantza eta Izargi taldeen kontzertuak iragarri dituzte. ○

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

astialdiko begirale ikastaroa

Zer da GEHI?

Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena Getxoko Udalak, Bizarra Lepoan euskara elkarteak eta herriko hainbat gazte eta kultura elkartek sinatutako hitzarmena da. Gure helburua **astialdiaren eta gazteen esparruan euskara bultzatzea** da.

Begirale ikastaroa

Noiz: 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktiko urte eta erdian egiten direnak.

Urritik maiatzera arteko zenbait asteburutan.

Baldintzak: 18 urte izatea edo 2013ko abendua baino lehen betetzea.

Praktikak Getxoko astialdi talderen batean egitea.

Prezioa: 310€ epeka ordaindu daitezkeenak: 220€ 2013ko irailean ordainduko dira eta 90€, berriz, 2014ko irailean.

Oharra: aterpeen prezioa ez dago prezioaren barne.

Titulazioa:

Eusko Jaurlaritzak luzatutako **titulazio ofiziala** izango da.

Dirulaguntzak

Getxoko Udalak ikastaroaren **kostua diruz lagunduko** du, Getxoko astialdi talde bateko **partaide** izanez gero edota Getxon **errolatuta** egonez gero.

Matrikulazio data:

Irailaren 16tik 30era Bizarra Lepoan euskara elkartearen bulegoan, goizez 9:30etik 14:00ak arte.

Ekarri beharrekoak:

NAN fotokopia, **argazki bat** eta **abonarea** bulegora ekarri behar dira BBK 2095 0019 50 9102257479 kontu korrontean ingresoa egin ostean.

Antolatzaileak:

Bizarra Lepoan euskara elkarte eta Bizkaiko Urtxintxa Eskola

Helbidea:

Martikoena kalea 16, 2. solairua 4. bulegoa 48992 Algorta-Getxo 94 491 03 87 | info@bizarralepoan.org | www.bizarralepoan.org

Informazio gehiago:

Izen emate orria Bizarra Lepoan webgunetik deskargatu daiteke. www.bizarralepoan.org blogetik



“Malabareak eta zirkoa maite nituen, eta hori egitea erabaki nuen. Aukera baino, beharizana zen”

Mikel Ayala Larrañaga > Zirkoa pasio, afizio eta bokazio

Hamar urte bete barri dira Mikel Ayala algortarrak maleta egin, Algorta utzi eta bere ametsa errealitate bihurtzera joan zenetik. Zirkoa zuen afizio, bokazio eta pasio, eta zezenari adarretatik heltzea erabaki zuen: *“Biologia ikasten hasi nintzen unibertsitatean, baina lehenengo urtean konturatu nintzen hori ez zela niretzat. Malabareak eta zirkoa maite nituen, eta hori egitea erabaki nuen”*. Erabakia erraza izan ez zen arren, ez zuela beste alternatibarik aitortu du Ayalak: *“Joan behar nuen, eta gauza barriak ikusi, ikasi... Aukera baino, beharizana izan zen”*. Ingalaterrara joan eta han egin zituen zirko-ikasketak urte eta erdiz, beka batez. Gero, Madrilen zirkoa ikasten jarraitu zuen: *“Zirkoko elementu guztiak ikasi nituen: akrobazia, trapezioa, oreka... Lehenengo, elementu guztiak ikasi behar dituzu, eta gero zurea hautatu: ni malabareak hasi nintzen, Algortan diabolaren moda hasi zenean, eta malabareak jarraitzen dut”*. Madril atzean utzi, eta Frantziar Estatuan zirko ikasketak jarraitu zuen, beste bi urtez. Hurrengo geltokia Hegoamerika izan zen: *“Urtebete ibili nintzen malabareak egiten. Kaleko zirkoa sentitu gura nuen”*. Bueltan, lagun batzuek Subliminati Corporation antzerki-taldea sortu zuen, hamaika herrialdetan emanaldiak eskainiz. Algortan, baina, oraindino ez... *“Getxo Antzokian gura nukel”*. Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Utopian, Antzerki-Eskola barria

Aiboako lokala utzi eta Errotatxu poligonora joan dira Antzerki-Eskolako lagunak Utopian delako proiektu barria garatzeko: antzerkia, dantza eta perkusioa uztartzen ditu Eskola barriak

Ibilbide luzearen ostean Getxoko Antzerki-Eskolaren proiektua berrikusteko unea zela iritzi zioten arduradunek orain urte bi: hausnarketaren eta lan handiaren ostean iritsi da Utopian. Hiru arte-diziplina uztartzen dituen proiektu barritua da eta, hura ez ezik, lokala ere aldatu du: Errotatxu poligonoan dago antzerki-eskola barria.

Aiboako lokalak utzi eta Errotatxu industrialdera aldatu dute Getxoko Antzerki-Eskola, prozesu horretan Eskolaren proiektua bera bizibarriz. Utopian da egitasmo barriaren izena eta sorkuntzarako gunea da. Hain zuzen ere, helburua da "persona guztien sormena bultzatzea antzerkia, perkusioa eta dantza garaikidearen bitartez". Beraz, antzerki hutsetik harago doan egitasmoa dugu Utopian: Getxoko Antzerki-Eskola, Izur Dantza-Eskola eta Astindu Perkusio-Eskola batzen ditu, hiru diziplinak uztartzen dituztela sorkuntzetan. Erakunde pribatua da baina, era berean, "zerbitzu publiko izateko asmoa dauka: artea Getxoren eta getxoetarren zerbitzura ipini gura" dute sortzaileek, Aintza Uriarte, Carlos Baiges, Urtzi Aio eta Arantxa Iurrek.

Azaldutenez, hiru lan-ildo nagusi dauzka proiektu barriak: formazioa, ikerketa eta ekoizpena. Eta, bide horretan, Utopianen helburu nagusiak dira: herritarren sorkuntza bultzatzea, horrela taldea ere lantzen delako; aisi konprometitua egin adin guztietarako, egunerokoan



Errotatxu industrialdean dago Utopian, Getxon, Algortatik Berangorako errepidean

transmittituko diren baloreak sortzeko asmoz; eta Getxoko kultur elkarteakaz komunikatu eta kultur etxeagaz lan egin herriko artea zabaltzeko.

“Antzerki-Eskola duela 1982an sortu zen eta etenbako garapena bizi izan du Utopian jaio arte”

Etengabe barritzen

Aipatu helburuez gainera, Utopianek talentua daukaten baliabide ekonomikobako gazteei lagundu gura die eta horretarako sortu dute Doako Irakaskuntza Institutua: talentua daukaten 16 eta 35 urte bitarteko gazteei aukera emateko euren bokazioa garatzeko. Proiektu hori Lanbidek eta Bilboko Udalak lagunduko

dute. Hori dena garatzeko aldatu dira 800 metro koadroko eraikinera eta irailaren 14an inauguratu dute.

Claudio Nadiiek abiatu zuen Antzerki-Eskola amateurra 1982an: inguruko herrietan ere emoten zituen eskolak eta beragaz hasi ziren gaur egun Eskola daroaten asko. Jose Miguel Elvirak hartu zion lekukoa eta laster sortu zen eskola profesionala ere. Hasieran Areetako kultur etxean zegoen, 1996 arte: Elvirak bere bidea hartu zuen orduan eta Aintza Uriarte, Carlos Baiges eta Arantxa Iurrek jarraitu zuten Eskolagaz, Villamonteko lokal batean; duela bost urte Aiboa auzora aldatu ziren, lehengo Getxo II institutu-ko eraikinera. Eta orain Errotatxura, leku barria eta proiektu barrituagaz. ○

Info+: www.utopiangetxo.com

Ibarbengoako parkingaren proiektua ikusgai: alegazioak aurkez daitezke



Ibarbengoako metro geltokia: 2015ean zabalduko dute

Andra Maritik Berangora bidean eraiki dute metro geltoki barria, Ibarbengoan. Bizkaiko Garraio Partzuergoak iragarri duenez, 2015ean hasiko da lanean eta ordurako aparkaleku bat egin gura dute inguruan. Proiektua Santa Clara eraikinean erakusgai egongo da urriaren 7ra arte, udaleko Hirigintza sailean.

Abuztuaren 23ko Euskadiko boletinean argitaratu zuten, orain proiektuari alegazioak aurkez diezazkiekete korporazioek, toki-erakundeek, elkarteek eta norbanakoek, "trazaduraren kontzepzio globalari dagokionez eta interes orokorrari eragiten zaion heinean".

Boletinean zehazten denez, aparkalekuak 300 bat plaza izango ditu, kale mailako solairu bat eta lur azpiko bi. Horiei gehitu behar zaio aparkalekuan sartzeko

bide bat, Ormaza kaletik geltokiraino doana, baita oinezkoentzako beste bide bat ere. Getxoko Udalak dioenez, "ingurua urbanizatuta, metro-geltokia zabalduko da". Gogoratzea metroa egin zutenean, 1995ean, Andra Mariko tren-geltokia kendu zutela, ez ordea Maidaganeko lur gaineko pasabidea. Auzokideen urtetako eskaeraren ostean, aurtun metroaren bidea lurperatu dute.

Geltoki barriaren proiektua, esan legez, Santa Clara etxean ikus daiteke asteleheneetik barikura, 09:00etatik 14:00etara. Gainera, ondoko tokiotan ere eskura daiteke proiektuari buruzko informazioa: Ingurumen eta Lurralde Politika sailaren Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Gasteiz) eta interneteko www.euskadi.net gunean. ○

NAGUSIEN ETXEKO ESKAINTZA BARRIA

Nagusien Etxeak ikasturte barrirako jardueren egutegia kaleratu du, oraindik eta 2014ko uztaile bitarte "bazkideei antolatzeo aukera hobea emote aldera". Beste behin ere, Nagusien Etxeak hainbat jardura mota antolatu du, besteak beste: txangoak, kultur bisitak, pintura, eskulangintza, Sevillako dantzen eta abarren ikastaroak, dantzaldiak, bidaiak eta abesbatzaren emanaldiak. Jarduerari eta datei buruzko informazio gehiago topatuko duzu udal-webgunean: www.getxo.net.

IZEN-EMOTEA EMAKUME ETORKINENTZAKO PROGRAMARAKO

Emakume etorkinentzako topaketa eta prestakuntza programan izena emotea dago daborduko, internet bidez: emakumeetorkinakgetxo.wordpress.com. Getxoko Immigrazio eta Berdintasun Zerbitzuek antolatutako programa hau 10 saioz osatuta dago eta hiru ordukoak izango dira. Haren bitartez, emakumeei aukera eskaini gura diete "bizitzan gainditu behar izan dituzten erresistentzia eta borrokei, eta gaur egun haien udalerrira den honetan aurre egin beharreko errealitateari buruzko gogoeta egin dezaten". Urrian hasiko dira eta zapatuetan izango dira Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan (Martikoena kalea, 16).

ATZERRITARTASUNARI BURUZKO SAIOA

Atzerritartasun legeari buruzko informazio-saioak egiten ari da Elkargune (Etorkinentzako harrera programa): egoitzabaimenak eta lan-baimenak, barriro elkarteak, nazionalizazioa... Gai desberdinak jorratzen dituzte hilabeteko azken eguaztenetan. Horrenbestez, hurrengo deialdiak dira: irailaren 25ean, urriaren 30ean eta azaroaren 27an. Saioak Algortako kultur etxean egingo dituzte eta 19:00etan hasiko dira.

Info+: 944 660 151, www.getxo.net eta inmigracion@getxo.net

Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90€

BEZ BARNE

global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

Elene Gonzalez eta Miren Mentxakatorre > agur, zorriak!

“Zorriak erabat kentzen ditugu saio bitako tratamenduagaz”



Basagoiti kaleko 76.ean daukate lokala, Algortan

Zorriak, a zer buruhaustea gurasoentzat, batez ere ikasturte hasieran. Onena litzateke izurriteei aurrea hartzea eta prebenitzea, baina berandu bada eta zorriak buruan bueltaka badauzkazu ez ei da erraza ondo kentzea, edo behintzat horretarako nahikoa astirik ez ei daukate egun gurasoek. Bada, oraindik aurrera laguntza izango dute, Algortan zorriak kentzeko kontsulta zabaldu dute-eta: Miren Mentxakatorre eta Elene Gonzalez ama-alabak ari dira zorriakaz borrokan, baita irabazi ere. Denda bitxia, baina tratamendua eraginkorra oso, saio bitan besterik ez.

—Bitxia negozioerako aukera hau, ezta?

—Proiektua hasi zuen ama talde batek: ez zeukaten lanik, ikusi zuten arazoa zegoela zorriakaz, gero eta handiagoa. Maria gure laguna izan da aitzindaria: proiektuagaz hasi zen, baina une jakin batean gelditu eta guk ekin genion berak hasitako bideari; beraz, eskerrak emon behar dizkiogu.

—Eta zelan kentzen dituzue zorriak?

—Tratamendua egiten dugu bi saiotan, alkarren artean zazpi eguneko tartegaz. Saio bakoitzak ordubete edo ordu eta erdi irauten du, eta hiru fase dauka: lehenen-

goan, makina batez xurgatzen ditugu zorriak handienak; bigarrenan, orrazi bereziagaz eskuz kentzen jarraitzen dugu; eta hirugarrenean, orrazten jarraitzen dugu, baina luparen azpian, horrela bartzak zein ninfak ken ditzakegu, hau da: zorrien arrautzak eta zorri jaiobarriak.

—Esan duzue gero eta zorri gehiago dagoela, zergatik?

—Bai, hainbat arrazoi egon daiteke gure ustez: elikadura, ingurumen-faktoreak... Gainera, denboragaz, produktu kimikoek ez daukate eraginik eurenengan.

—Zorriak erabat kentzea lortzen duzue?

—Bai, baina gero mantenua egin behar da, barrero ez hartzeko. Horretarako iradokizunak eta gomendioak emoten ditugu: produktu naturalak erabiltzea eta kimikoak alde batera uztea, orrazi berezia erabiltzea, e.a. Ez da gehiagorik behar.

«Bardin da ule kizkurra edo lisoa, garbi edo zikin; azalaren araberakoa da»

—Alde handia dago ohiko produktukaz, garestiagoa da zuen tratamendua?

—Ez dago alde handirik. Produktu kimikoak garestiak dira eta tratamendu hau, gure ustez, jendeak ordain dezake. Adibidez, likidoek 30 edo 40 euro inguru balio dute, baina zorria akatu besterik ez dute egiten: gero kendu behar dira zorriak eta arrautzak. Gainera, gurasoek ez daukate denbora handirik eta guk laguntzen diegu. Tratamendu osoa kobratzen dugu 30 eta 55 euro artean, esan bezala, ulearen luzeraren eta infestazioaren arabera. Azterketak ere eskaintzen ditugu pertsonak zorriak daukan edo ez ikusteko, 15 euroren truke.

—Umeak bakarrik joaten zaizkizue?

—Uste genuen batez ere umeak izango genituela, baina gurasoek ere hartzen dituzte zorriak; eta nerabeak ere izan ditugu. Buru-azalaren PHaren arabera joan ohi dira zorriak buru batera edo bestera; beraz, pertsona batek ez dauka zorriak, baina bere lagunak astero izan ditzake: bardin da ule kizkurra edo lisoa izan, garbi edo zikin... Gainera, orain urte osoan daude zorriak. Umeak asper ez daitezten jolasak eta bideoak dauzkagu, bestela oso zaila da-eta geldirik egotea: eta gustura egon ohi dira. ○

Info+: www.adiosbichitos.com

X. Jabekuntza-Eskola

Aurtengo ikastaroetan izena emon dezakete emakumeek irailaren 25era arte



Bertso-eskola feminista ikastaroa emongo du Uxue Alberdik, Ainhoa Agirreazaldegigaz batera

X. Jabekuntza-Eskolako ikastaroetan izena-emon daiteke. Berdintasun Zerbitzuak antolatuta du, beste behin ere, “jendartean emakumeen partaidetza politikoa eta soziala areagotu asmoz”: irailaren 25era arte emon daiteke izena Herritarrak Artatzeko Bulegoetan eta udalaren webgunearen bitartez, beraz azkar ibili! Ikastaro guztiak egingo dituzte Jabekuntza Eskolaren lokalean (Martikoena, 16).

Ondoko ikastaroak prestatu dituzte, besteak beste: jendarean hitz egiteko teknikak, indarkeria ate azpitik sartzen uzten dugu?, desprintzesatze tailerra, jabe-kuntzarako kultura arteko gunea, femi-

nismoarentzako erronka berriak: emakume migratzaileen ahotsak barnebiltzea, autodefentsa feminista, gazteak eta indarkeria matxista, zaindu geure burua zainduz, gure menopausia modu osasungarrian bizitzea, emakume artistak ikuspegi feministatik edota kotxe-mekanika.

Abendura bitartean hasiko diren ikastaroetan onartutako zerrenda urriaren 3an argitaratuko dute eta matrikula 7tik 11ra egin behar da. Urtariletik aurrera diren zerrenda, barriz, abenduaren 10ean argitaratuko dute eta matrikula abenduaren 16tik 20ra egin behar da. ○

Info+: www.getxo.net/eu/igualdad

EUSKALTEGIETAN IZENA EMOTEA DAGO

Euskara ikasi edo hobetu gura baduzu Getxoko euskaltegietan izena emon dezakezu hil osoan: urtero legez, adin, gura eta danetarako aukera ugari eskainiko dute ikasturte honetan ere. Lauaxeta AEK, Jose Antonio Agirre eta Udal Euskaltegian ikas dezakezu euskara. Gogoratzea Udalak horretarako diru-laguntzak emoten dituela urtero: une honetan horiek eskatzeko epea amaitu da, baina 2014ko oinarriak onartutakoan horien barri zabalduko ei du. Matrikulazio kanpainari buruzko informazio zabalagoa topatuko duzu udalaren webgunean: www.getxo.net.

EGIZU EUSKARAZ, BERBALAGUN!

Euskara praktikatuta eta euskaraz bizi gura dutenak harremanetan ipintzen ditu Berbalagun programak: talde txikitan, astean behin, euskaraz dakitenak eta mintzapraktika egin gura dutenak elkartzuz. Laster abiatuko dute aurtengo ekimena eta aukera asko egon ohi da: pala-taldea, txirindula-taldea, gurasolagun-taldeak, bizkaiera taldea, e.a. Ez galdu aukera eta animatu parte hartzera Egizugaz harremanetan ipiniz!

Info+: www.egizu.org

MASKULINITATEAZ HAUSNAR DEZAGUN

Bosgarrenez egingo du Berdintasun Zerbitzuak *Maskulinitatea birpentsatzen* tailerra, gizonen zuzenduta. Helburua da maskulinitatearen identitateei eta gure jendarteko maskulinitate ereduari buruzko gogoeta egitea eta Mikel Otxotorenak dinamizatuko ditu saioak. On:Giz elkarteko kideak. Urriaren 7tik azaroaren 11ra arteko astelehenean izango dira saioak, 19:00etatik 21:00etara. Tailerraren prezioa 5 euro da eta izena emoteko hainbat bide dago: berdintasuna@getxo.net edo www.getxo.net bitartez, Berdintasun Zerbitzuan (Santa Klara eraikina) eta 944 660 136 telefonora deituz.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Juan Carlos Garaizabal > Bilbao Voz Project: *Kantatzeaz* gozatu tailerra

“Zelan hitz egiten diguten, era batera edo bestera erantzungo dugu”

Kantatzeaz gozatu delako tailerra eskainiko dute Juan Carlos Garaizabalek eta Betina Aragon Hillemanek urriaren 5ean, Kultur Leioan; Bilbao Voz Project taldeko kideak dira. Umeek izan ezik, edonork parte har dezake, ez da eta zertan kantatzen jakin. Baina, zehazki, zer landuko dute?

—Zer da Bilbao Voz Project?

—Plataforma bat da eta bere helburua da ahots-kulturaren kontzeptua zabaltzea. Horretarako, hainbat ekintza garatzen dugu: artikuluak, hitzaldiak, tailerrak, e.a. Ahots-ohitura desberdinak ezagutzera ematen ditugu, ekimen ludikoak egiten ditugu ahotsa zentzuz erabiltzeari buruz sensibilizatzeko. Irekiak edo sektore jakinentzat izan daitezke: egindako eskaeren arabera diseinatu ditugu.

—Kantatzeari buruz bakarrik da edo ahotsari buruz orokorrean?

—Ahots-kultura ez da bakarrik kantatzea, baizik eta gure entzutea ahotsaren eraginari zabaltzea. Emoten dugun irudiari dagokionean, arreta handia jartzen diogu itxurari eta arropari, baina ez hainbeste gure ahotsak besteengan daukan eraginari. Eta hori oinarritzkoa da, esan gura duguna horretan finkatzen delako: zelan hitz egi-



Info+: www.bilbaovozproject.com

ten diguten, era batera edo bestera erantzungo dugu-eta. Proiektu honen barruan daukagu Ahotsaren Eskola Iraunkorra, eta haren baitako atal bat da *Kantatzeaz gozatu*. Tailer horretan aurkeztuko ditugu hainbat kontsigna, zertarako eta ahotsa zentzuz eta osasunez erabiltzen ikasteko. Kontua da ahotsaren hautematea eta adierazmena bultzatzea munduko abestien edo guretatik desberdinak diren ahots-tradizioen ikaskuntzaren bitartez. Kultu-

rek ahotsa igortzeko modu jakinak garatu dituzte: inguruaren aurrean gorputz-jarrera da eta soinu jakina sortzen du. Hasiera batean gure hizkeratik diferente emoten duten horietara hurbiltzen gara: besteek zelan hitz egiten duten ulertuz, euren sentitzeko modura hurbil gaitzke, eta ohartu ez garela hain desberdinak. Parte hartzeko bardin dio kantatzen jakin edo ez, inork gitxik desafinatzen du-eta benetan; beraz, jendea anima dadila etortzera. ○

Adi, lehiaketak!

Pop-rock lehiaketarako kartelak, **argazkiak** eta **film laburrak**: badago zertan parte hartu



Info+: www.kulturleioa.com

Hainbat lehiaketa abiatu dituzte Leioan: Kultur Leioak film labur eta argazki lehiaketak, eta Aterpe Leioa Gaztegunek pop-rock lehiaketarako kartela aurkeztzeko. Lehen bietarako lanak Kultur Leioan aurkeztu behar dira urriaren 11 eta 18a baino lehen, hurrenez hurren. Kartel lehiaketarako proposamenak, berriz, urriaren 31 baino lehen, Gaztegunean (944 055 850 eta gazte@leioa.net).

Kultur Leioak antolatu lehiaketei dagokionez, bestalde, informazio osoa ikus daiteke bere webgunean, baina hona hemen hainbat xedapen: film laburrak, zuzeneko grabazioak edo animazio-lanak izan daitezke gaia edozein dela, euskaraz edo gaztelaniaz, eta gehienez 15 minutu

iraun behar dute; argazki lehiaketan, berriz, hainbat mailatan parte har daiteke (zuri-beltza, kolorea eta telefonoagaz egindako argazkiak), gaia edozein izan daiteke.

Sariei dagokionez, euskarazko eta gaztelaniazko film onenek 1.000 euroko sari bana jasoko dute, bigarren sari bakarra egongo da (700 euro), baita herriko egile onenari saria ere (400 euro). Argazkietan, ordea, ondokoak sarituko dituzte: irudirik onena zuri-beltzean eta koloretan (400 euro bana), hiru argazkiko multzorik onena (400 euro), telefonoagaz egindako argazkirik onena (300 euro) eta leioaztarren lanen artean onena (200 euro). Bada, sortzen has zaitzke! ○

JAIK TXOPOETAN: URTEKO AZKENAK!

Orain bai, iritsi dira urteko azken jaiak Leioan. Txopoetakoak izango dira, irailaren azken aste akabuan. Ohi legez, umeentzako jolasak eta jarduerak prestatu dituzte, baita nagusientzako lehiaketak ere. Erromeriak eta kontzertuak ezin falta, ezta herri-bazkaria eta txosna ere. Beraz, ez galdu aukera eta hurbildu Txopoetara irailaren 27, 28 eta 29an!

KULTUR LEIOAKO PROGRAMAZIO BARRIA: TERAPIAS ANTZEZLANA

Prest dago Kultur Leioako programazio barria, hemendik eta abendura bitartean. Ikuskizun eta jarduerak antolatu dituzte udagoienerako: *Terapias antzezlanak* inauguratuko du egitaraua urriaren 4an, barikuan. Vaiven ekoiztetxe euskaldunaren eta La Pavana valentziarraren lana da, eta aktoreak, besteak beste: Mikel Losada, Ane Gabarain, Mikel Laskurain eta Dorleta Urretabizkaia. Emanaldia 20:30ean hasiko da eta sarrera 12 euro ordaindu behar da. Urriaren 6an, barriz, dantzaren tartea izango da: *Constelaciones* ikuskizuna eskainiko du Madrilgo Aracaladanza taldeak; 18:00etan hasiko da eta sarrera 5 eurokoa izango da.

Info+: www.vaivenproducciones.com eta www.lapavana.com

ATERPE GAZTEGUNEKO TAILERRAK PREST

Daborduko izena emon daiteke Aterpe Leioa Gazteguneko iraila eta abendua bitarteko ikastaro, tailer eta txapelketetan. Besteren artean, perkusioa, sukaldaritza, euskal dantzak, txapak edota larrua lantzen ikas daitezke. Horretaz gainera, drogamenpekotasunen tailerra, eta gazte music box, dardo eta ping-pong txapelketak egingo dituzte; Leihosex zerbitzua ere abiatuko dute. Izen-emoteak: Gaztegunean (Aldapabarrena, 2)

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztiak konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargelzailak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com

LUBERRI
Basolanak SL
Lorezaritza

Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropila gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Txema Agirrebeitia > *Una noche sin Sabina* musika-taldeko kidea

“Ikusleek ondo pasatzen dutela ikustea baino droga hoberik ez dago: horrek kitzikatzen gaitu”

Joaquin Sabinaren abestiez gozatu ahalko da irailaren 27an, barikuan, Astrabuduan: *Una noche sin Sabina* musika taldeak ekarriko ditu haren kantuak Josu Murueta plazara. Arrasate eta Gasteizko laukotea osatzen dute Txema Agirrebeitiak (gitarra eta ahotsa), Josu Onandiak (gitarra), Joaquin Marcok (baxua), Alfonso Arangurenak (bateria); eurekatz batera dator Iñaki Diaz teknikaria.

—Joaquin Sabinari omenaldia egiten diozue taula gainean?

—Bai, omenaldia da: bi orduko kontzertuetan jotzen ditugu Sabinaren abestiak, zaharrenetatik hasita barrienera, azken diskokoak barne; bere bizitzari errepaso egiten diogu. Kantu klasikoak jotzen ditugu, baita bestelakoak ere: horren ezagunak ez direnak, baina Sabina-zaleentzako gustukoak; apur bat ahaztuta dauden abestiei keinu eginez. Urtez urte errepertorioa barritzen goaz, izan ere, dagoeneko zazpi urte daramagu proiektu honegatz: egia esan, apurka hazten joan da eta ez dakigu hau zelan geratu.

—Zergatik Sabina?

—Oso gustuko dudalako. Denetarik egin dugu bizitzan: ni neu heavy musika egiten hasi nintzen gaztetan, tabernetan jotzeko



Zazpi urte daramate Sabinaren musika muin daukan ikuskizuna eskaintzen

taldeak izan ditugu... Drakkar berbera taldeagaz ibili nintzen zazpi urtez eta gero Sabinaren proiektuagaz hasi nintzen, taldekide ohiak erakarrit. Guragabe bezala hasi ginen eta, apurka-apurka, gero eta kontzertu gehiago daukagu. Hori eskertzekoa da: jendea zoragarria da eta uste dut gustura ikusten dutela kontzertua.

—Eta Sabinak zer dio?

—Ideiarik ez. Suposatzen dut nekatuta egongo dela gurealako taldeakaz, asko eta asko dago-eta. Bera ez dut ezagutzen, bai-

na behin, bere musikariak abestera igo nintzen halako kontzertu batean. Agian pentsatuko dute: “Sabinarenak abesten dituen beste inozo bat”. Ez dakit, baina ni Sabina banintz gustuko nuke musikariak nire abestiak kantatzea.

—Eta zuek, zer eskainiko duzue?

—Sabina ehuneko ehunetan eta giro ona, taula gainean primeran pasatzen dugua. Jotzen zaudela, ikusleek ondo pasatzen dutela ikustea baino droga hoberik ez dago: horrek kitzikatzen gaitu. ○

II. Bardintasun-Plana onartu du Udalak eta bide horretan jarraitu beharreko ildoak zehaztu ditu



Info+: www.erandio.net

“**Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko Bardintasunerako II. Plana**” onartu bari du Udalak eta “*bardintasun hori eskuratzeko asmoz Administrazioan zein udalerrian jarraitu beharreko lan-ildo nagusiak adierazten ditu*”.

Txostenak 22 programa jasotzen ditu “*datozen urteotarako 43 helburu eta 94 ekintzagaz*”, Udalaren zortzi sailetan bardintasunaren aldeko ekintzak eta helburu propioak jorratuko dituela. Hainbat gai jorratzen ditu agiriak: emakumeen partaidetza sozio-politikoak, etxeko eremuan nahiz zaintza esparruan erantzukizun bateratua sustatzea, prebentzioa eta arreta indar-

keria matxista kasuetan, hobekuntzak menpekotasuna artatzeko edota hiri-plan-gintzaren lanketa genero ikuspegitik.

Udalak jakinarazi duenez, Plana egiteko prozesuan parte hartu dute politikariak zein teknikariak, Bardintasun saileko informazio-batzordeak, herriko elkarteak eta Bardintasunaren aldeko Erandioko Emakumeen Kontseilu sortu barriak. Hain zuzen ere, Kontseilu horrek etorkizunean hartuko duen garrantzia azpimarratu du: “*udalerrian bardintasuna sustatu eta tokiko administrazioari aholkatzeko lan egiten duen erakundea*” izanik, Plana abiatzeko “*funtsezko pieza*” izango ei da-eta. ○

MENDIGUREN PLAZAKO JOLASGUNEA ESTALIKO DUTE AZARORAKO

Udalak Astrabuduko Mendiguren plazako jolasgunea estaliko duela iragarri du, umeen jolastokiak eguraldi txarretik babesteko eta “*hiriguneak gero eta atsegina*” egiteko. Lanak hil honetan hasiko dira eta azaroan erabili ahalko da barriro jolasgunea. Estalkia ipintzeagaz batera hornikuntza eta altzariak hobetuko dituzte, baita zoria barritu ere. Gainera, jolas bi gehiago eta ariketa fisikoak egiteko hiru aparatua ipiniko dituzte; azken horiek erabiltzaile helduei zuzenduta egongo dira. Argiztapena ere moldatuko dute, estalki barriaren eskaerari egokitzeko.


EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Urriaren 15era arte eska daitezke diru-laguntzak Erandion euskararen erabilera sustatzeko egitasmoetarako; herriko elkarteentzako deialdia da. Zehazki, 2013an garatu edo garatuko diren egitasmoak lagunduko dituzte deialdi honegatz, eta Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira eskaerak. Informazio gehiago: 944 890 128, euskara@erandioko-udala.com, www.erandio.net eta www.erandiokoeuskarazerbitzua.com.

HAIKU LEHIAKETAN PARTE HARTZEA DAGO

Azaroaren 14ra arte aurkez daitezke testuak III. Haiku Lehiaketan parte hartzeko. Haikuak hiru lerroko poema txikiak dira eta horrela errimatzen dute: lehen lerroa bost silabakoa da, bigarrena zazpikoa eta hirugarrena bostekoa (5-7-5). Ez dute titulurik, ez errimarik, hitzak dira protagonista. Kategoria bi daude (18 urtetik beherakoentzat bata, 18 urtetik gorakoentzat bestea) eta pertsona bakoitzak gehienez hiru poema aurkez ditzake (lehiaketak@erandioko-udalak.net).

Info+: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com



Denboraldi berriko arropa prezio paregabeetan

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

UKnatura
ZITEK PORTUGALSTE
ESKOLA SUPERIOR DE NAUTICA PORTUGALSTE
MARIA DIAZ DE HARO, 68
48900 PORTUGALSTE GIEKALIA

2013-2014 KURSOA

- *BIOERAKUNTZA tailerak
- *ARTISAU YABOIAK eta KOSMETIKOAK
- *BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- *ENERGIA BERRITZAPARRIAK
- *HEGAZI KAYAK

eta askoz gehiago...

www.uknatura.org 692705471 / 640742241

OSTA BIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977-6 • regaraizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Ilieta Kalea 1• ALGORTA

EMON IZENA KURTZIOKO IKASTARO BARRIETAN!

Kurtzio Kultur Etxeak adin eta gustu guztietarako ikastaro-eskaintza prestatu du hurrengo ikasturterako. Besteak beste, honako tailerrak eskainiko ditu: argazkigintza, tangoa, pintura, eskultura eta euskal kanta tailerra. Izena emateko epea irailaren 30ean amaituko da, Kurtzion. Prezio eta baldintzak kontsultatzeko: www.sopelana.net

PUNTA LUZERON HAREA ERAUZTEAREN KONTRA

Punta Luzero inguruan harea erauzteko proiektua bertan behera utz dezala eskatu dio Sopelako Udalak Bilboko Portu Agintaritzari, horrek Sopelan sor ditzakeen kalteak direla-eta: "hondartzetan, olatuetan, animalia eta landaredian, arrantzan e.a.". EAJ Bilduren proposamen honen alde agertu zen, eta PSE eta PP, barriz, abstenitu ziren.

INKESTAS ROCK FESTIBAL IRAILAREN 26TIK 28RA

Punta-puntako rock-taldeak elkartuko ditu barriro ere Inkestas Rock Festibal jaialdiak iraileko azken asteburuan. Kontzertuak El Peñon tabernan izango dira, deialde, eta besteak beste, honako taldeak elkartuko dira eguenetik zapatura arte. Jardungo duten taldeen gaineko eta gainontzeko informaziorako ikus. 43. orria.

SINADURA-BILTZEA BIDEGORRIA ESKATZEKO

Sopelmarreko hainbat auzokidek sinadura-biltzea egin dute euren auzoa eta Sopelako erdigunea bidegorri bidez lotzea eskatzeko asmoz. Auzokideek alternatiba batzuk proposatu dizkiote Udalarari: espalo bat bizikleta eta oinezkoek konpartitzea, errepidean gehieneko 20km/h abiadura ezartzea eta oinezkoek lehenetasuna izatea.

Fracking-aren kontra Sopelako Udalak fracking-agaz lotutako baimenak eten ditzatela eskatu die gobernuei



Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari egin die eskaera

Sopelak "fracking bako herria" izendatu du bere burua, udalbatzak gehiengo osoz hala adostu ostean. Udal Gobernuan dagoen Bildu koalizioak aurkeztu zuen proposamena, eta ez zuen kontrako botorik jaso: Bilduk (7) eta EAJk (7) alde bozkatu zuten, eta PSE-EE (2) eta PP (1), barriz, abstenitu ziren.

Onartutako testuan, Sopelako Udalak adierazten du ez duela gura gasa erauzteko teknika hau herrian erabiltzea, hori dela eta, dei egiten die Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari fracking-agaz lotutako baimen guztiak

eten ditzaten. Izan ere, Espainiako Gobernuak baimenak eman dizkio Frontera Energy Corporation S.L. enpresari Sopela eta Bermeo arteko kostaldean ikerketak egiteko.

Udal-ordezkariek nabarmendu dutenez, Uribe Kostan haustura hidraulikoak kalte ugari sortuko lituzke: "akuiferoak, atmosfera eta ur edangarria kutsatu e.a."

Fracking-aren kontra agertu den Uribe Kostako bigarren herria da Sopela; Plentziak apirilean hartu zuen erabakia. ○

Kattalin Errazti eta Paula Aiarza > ballet-dantzariak

"Royal Academy-ko ballet-azterketa profesionalak egingo ditugu azaroan"



Lorealde Akademian hainbat ballet-dantzari ari dira egun

Ballet-harrobi ederra du Sopelak. Horren adibide argia topa dezakegu Lorealde Akademian: 8 eta 13 urteko lau ikasleek ballet-erakunde goreneko Royal Academy-ren azterketak gaintitu barri dituzte. Kattalin Errazti eta Paula Aiarza 13 urteko gazteak dira horietako batzuk. —Lehenik eta behin, zorionak! Zenbat urte daroazuez balletean?

—Txiki-txikitatik hasi ginen Berangoko Ballet-eskolan, eta orain urte bi Lorealden. Beti gustatu izan zaigu balleta: egia esan, hasieran uste genuen ez zitzaigula gustatuko, baina gero lagunak egin genituen eta oso ondo pasatzen dugu guztion artean. Lagun asko egin ditugu! —Ballet-eskolan ordu ugari igaroko dituzue horren ondo aritzeko!

—Astean birritan etortzen gara normalean... beno, batzuetan hirutan ere bai! Gero, Royal Academy-ko azterketak egingo ditugu: hor titulu ofizialak ateratzen dira, etorkizunean ballet-dantzari profesionala izateko. Mundu mailan ballet

erakunderik garrantzitsuen da.

—Eta erakunde horretako azterketa gaintitu barri duzue, ezta?

—Bai! Maiatzean hirugarren mailako azterketa egin genuen Bilbon: apur bat urduri jarri ginen lehenengo aldia zelako... baina uztailean emaitzak jaso eta gaintitu dugu!

—Eta zein izango da hurrengo urratsa?

—Azaroan azterketa profesionalakaz hasiko gara: intermediate foundation azterketa egingo dugu, hots, 9. maila. Hau da,

«Hirugarren mailatik bederatzigarrenera egingo dugu salto aurten»

hirugarren mailatik bederatzigarren mailara salto egingo dugu, zuzenean. Azaroan azterketa gaintitzen badugu, maiatzan beste bat egin beharko dugu. Asko entrenatzen gabilta Belen irakasleagaz, pozpozik gaude! Etorkizunean, aukera balez, ballet dantzari profesionalak izatea gustatuko litzaiguke, ea aukera dagoen! ○

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

EMAN IZENA KULTUR ETXEKO IKASTAROETAN!

Aurten ere Santa Ana Kultur Etxean eta Antzokian hamaika ikastarotan parte hartzeko aukera izango duzu! Helduentzat honako tailerrak eskainiko dira: altzari zaharbarritzea, zur-lanketa, tai-txi, eskulanak, margolaritza, areto-dantzak, euskara eta ingelesa. Berdintasun Sailak eta Nagusien Etxeak ere hainbat ikastaro eskainiko dituzte. Izen-ematea irailean egin beharko da, Kultur Etxe edo Nagusien Etxean.

URRIAN, ARGIHIZKIAK ERAKUSKETA

Urriko lehenengo asteetan ArgIHizkiak literatura-erakusketa ikusgai egongo da Berangoeta Kultur Etxean, Burdin-Hesiaren Museoaren alboko aretoan. UK aldizkariak eta Egizu elkarteak bigarren urtez antolatuko dute aipatu lehiaketa, eta eskualdeko 12 argazkilariren lanak batu dituzte, testu laburrak lagunduta. Ez galdu!

BURDIN-HESIAREN MUSEOAK MILA BISITARI IZAN DITU URTEBETEAN

Urtebete igaro da Berangoko Burdin-Hesiaren Museoak Berangoeta Kultur Etxean ateak ireki zituenetik, eta daborduko mila bisitari izan ditu, Udalaren arabera. Horietatik 250 lagun bisita gidatuenez bidez heldu ziren museoan, eta interpretazio-gunea ezagutzeaz gain, Areneburu inguruan dagoen bunkerra ere bisitatu zuten.

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

26. urtez, badator Milia! Urriaren 5ean ospatuko da atletismo-proba ezaguna; eman izena eta parte hartu!



Rui Silva eta Iris Fuentespila, iazko irabazleak, Berangon egongo dira aurten ere

Urtero legez, Miliak ondo etorria emongo dio udagoienari Berangon. Aurtengoa XXVI. edizioa izango da, eta probaren aurrekontuan murrizketak egon diren arren, Miliak mailari eutsi eta punta-puntako korrikalariak batuko ditu. Hitzordua urriaren 5ean izango da, Gobelalde kale inguruan, eta besteak beste, Rui Silva eta Iris Fuentespila iazko txapela barriro lortzen saiatuko dira.

16:40an hasiko dira lehenengo kategoriako parte-hartzaileak tipi-tapa, eta probak 20:00ak arte luzatuko dira gi-

xienez. Horren ostean ohiko sari-banaketa izango da. Milian parte hartzeko epea urriaren 4an amaituko da, eta interesa duten lagunek Berangoeta Kultur Etxera joan beharko dute irailaren 30etik aurrera 18:00etatik 20:00ak arte. Halaber, 946 682 143 telefonoan eta millaberango@gmail.com e-postan ere egin daiteke.

Josu Hernandez Berango Atletismo Taldeko presidenteak eskertu gura izan du erakunde askoren babesa: *“Zuei esker Milia Estatu mailako hirugarren proba garrantzitsuena izatea lortu dugu”*. ◯

A. Zarauza eta I. Beitia > Esaera Zaharren Txapelketa
“laz izan genuen parte hartzaileen errekorra hautsi gura dugu”



Izema emateko epea pasatu bada ere, giroaz gozatzera edonor hurbil daiteke

Hilaren 28an, zapatuan, ospatuko dute Plentzian Esaera Zaharren Txapelketa. Eleiz enparantzan, goizeko 11:00etan hasita, musikari eta bertsolarien laguntzagaz ibiliko dute herria.

—Plentziako Esaera Zaharren lehiaketa ez da gauza berria, laugarren edizioa daborduko.

—Laugarren urtea, bai, baina denboraz justu-justu gabilta. Iaz parte hartzaile kopuru handiena izan genuen, 24 talde, eta aurten errekor hori hautsi gura dugu.

—Nobedaderik egongo da?

—Bazkaria egiteko lekua gura genuen aldatu: Gaztetxean izatea nahiko genuke. Udalarekin hitz egiten ari gara, baina oraindik ez dugu zehaztu (elkarrizketa irailaren 9an egin zen).

—Eta Gaztetxean ez bada?

—Baditugu B, C eta D planak, kar-kar! Hor ez bada frontoian izango da, aurreko urteetan legetxe. Aurrekontuaren zatirik handiena hor joaten zaigu eta, esan bezala, oraindik ez dugu zehaztu.

—Inguruko herrietan badaude mota honetako lehiaketak. Zergatik erabaki zenuen Plentzian anolatzea?

—Sopelakoan beti hartu izan dugu parte eta geurean egitea ere polita litzatekela pentsatu genuen. Jendeak herrian bertan ondo pasatzeko eta kultura sustatzeko.

«Inguruko herrietako jende gehiago hasi da etortzen; zabaltzen doa, gutxinaka»

—Gainera, ni bertan bizi naizenetik behintzat, ez da Plentzia herri oso euskalduna izan eta giro euskalduna sortzeko ideia ona zela pentsatu genuen.

—Gazteak ala nagusiak, nortzuk animatzen dira gehiago?

—Batez ere gazteek hartzen dute parte, koadrilak-eta. Hasierako beldurra hori zen, baina jendeak ondo erantzun du.

—Eta herrikoak ala ingurukoak?

—Hasieran denak ziren Plentziakoak, baina hasi dira ingurukoak etortzen bere: Sopelakoak, Algortakoak... Zabalduz doa apurka-apurka. ◯

Aurten ere euskarari heldu!

- Maila guztiak ordutegi desberdinetan
- Ikastaro trinkoak larunbatetan

HABEk diruz lagunduta



Algortako Etorbidea 104 48991 (Algorta - GETXO)
Tf. 94 460 66 71

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

PLENTZIAKO HONDARTZA, ESTATUKO ONENETAKOA

OCU Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak urtero egiten duen Espainiar Estatuko hondartza onenen zerrendan laugarren postuan jarri dute Plentziakoa. Uribe Kostako areatza Kadizeko La Barrosa, Pontevedrako Area brava eta Gironako La Tossa hondartzen atzetik lotu da. Honegaz batera hirugarren hondartzarik seguruen eta hirugarren garbiena legez ere txalotu dute.

BIGARREN ESKUKO MERKATUA SOPELAN

Oparitu, aldatu edo salduko zenuke erabiltzen ez duzun hori? Lelo horregaz animatu gura dituzte herritarrek Sopolako bigarren eskuko merkatura hurbiltzeko. Etxean dituzunak saltzeko izena emateko epea zarratuta dagoen arren, hilaren 28an, 10:00etatik 14:00etara arte, Jauregizar enparantzan inon aurkitzen ez duzun hori aurkitu ahalko duzu.

GORLIZEN, 'EUSKERAZ OLGATZEKO' PUZGARRIAK

Irailaren 28an, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara arte puzgarriak egongo dira haurrentzat Iberren. Euria izatekotan, gainera, ez da plana zapuztuko, puzgarriak herriko frontoian jarriko lituzketelako. 'Euskeraz Olgetan' Mankomunitateak antolatzen duen programa da, gaztetxoenen artean euskara sustatzeko asmoz.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Urduliz

Tokiko Agenda 21en baitan, datozen 8 urteetarako ekintza-plana adostu dute



Aurreko ekintza-plana amaituta, 2020ra artekoa adostu du Udaltzatza

Uztailaren 30eko Osoko Bilkuran onartu zuen Urdulizko Udalak datozen zortzi urteetarako Tokiko Agenda 21eko ekintza-plan berria. Alde bozkatu zuten EAJko bost zinegotziek eta PSEko zinegotzi bakarrak; Bildukoak, ostera, abstenitu egin ziren.

Udalaren hitzetan, aurrerapausorik esanguratsuenaren Gobernu Irekia eratzea izan da. Honen bitartez, Udalaren aurrekontua orain arte egin dena baino modu argigarriagoan gura dute ezagutzera eman. Horrez gain, herritarren parte hartzea ere sustatu gura dute, ekintza-plana eratzerako orduan egin duten legetxe, 450 lagun ingururen proposamenak jaso baitituzte. Azpiegituretan egin gura dituzte hobekuntza azpimarragarriak: oinezkoentzako bideak hobetu aldiriak eta erdigunea batuz, aparkaleku gehiago egin, Aita Gotzon Kaleko trenbide-pasagunea lurperatu eta garraibide publikoa bultzatu. Honegaz batera saneamendu-

sarea hobetu gura dute, ur-andela berria eraiki, kale-argiztapenean aldaketak egin, baita etxeko hondakinen biltzea hobetu.

Kulturak ere izango du lekua plan berrian: Gaztelekua martxan jarrita eta nagusientzako aisialdia zabalduz baliabideak areagotuko ditu Kultur Etxeak. Ba-

“Udalerri bizi, bateratu eta solidarioagoa lortu gura du Urdulizko Udalak ekintza-plan berri honegaz”

bes ofizialeko etxebizitzak ere bultzatuko dituzte, natura zaindu, kaleetako segurtasuna hobetu eta merkatarien elkarteagaz batera lan egin. Genero ikuspegia eta euskara sustatzea kontuan hartuko duela zabaldu du Udalak gainera.

Urtebete iraun duen prozesuaren ostean, Tokiko Agenda 21en bigarren fasea onartu zuen Udalak, beraz. Proiektu ederra nahiz eta gai asko zelan jorratuko dituzten oraindik ez duten zehaztu. ☐

Ira. 23 - Urr. 6

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Noraizanean.** Algortako Abian elkartearen. Doan.

► **Getxophoto argazki jaialdia.** Irailaren 29ra arte.

LEIOA

► **EHUko zeramika masterreko ikasleen lanak.** Irailaren 26tik azaroaren 10era. Kultur Leioako erakusketa aretoan. Doan.

PLENTZIA

► **Itziar Gromaz Aurrekoetxearen margolanak.** Irailaren 30era arte. Gofi Portalen. Doan.

ZINEMA

ERANDIO

► **Los becarios.** Irailak 28, 21:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.

SOPELA

► **Robots (euskaraz).** Irailak 29, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.

► **Imajinatu abestiak.** Urriak 6, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. 3 euro.

ANTZERKIA

GETXO

► **8 begi (Gilkitxaro antzerki-taldea).** Irailak 26, 20:30ean. Algortako Abian elkartearen. Doan.

► **Storytime.** Irailak 28, 11:00etan. Algortako kultur etxean.

► **Barre laborategian (Puski eta Txurruksiren ikuskizuna).** Irailak 28, 18:00etan. Algortako Abian elkartearen. Doan.



Aurten 10 urte bete ditu Organik konpainiak

► Erakusketa

Organik dantza-taldearen ibilbidea irudietan

Getxoko Organik dantza-taldea hamar urte bete du eta argazki-erakusketa batez ospatuko du: bere ibilbidea birpasatzen duen erakusketa ikusgai egongo da Algortako Torrene aretoan, urriaren 2tik 31ra. Ezohiko dantza eta antzerki taldea da Organik. Mugimendua erabiltzen du komunikaziorako eta musika sortzen dute obra bakoitzerako: mugimendu fisikoa da oinarria, indartsua eta emozioz betea, askotan hitzakaz uztartzen dute, baita umoreagaz ere. Organikek helburu bi dauka: batetik, dantza garaikidearen joerak ikertu, baita antzerkiagaz eta musikagaz zelan uztartu ere; bestetik, aretoetatik atera, kalera eta bestelako guneetara hurbildu.

• **Non:** Algortako Torrene aretoan • **Noiz:** Urriaren 2tik 31ra

► **La lengua en pedazos.** Irailak 28, 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 12 euro.

► **Maxmadera (Hamaika taldea).** Urriak 5, 19:00etan. Algortako kultur etxean. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 3 euro.

LEIOA

► **Terapias (Vaiven eta La Pavana).** Urriak 4, 20:30ean. Kultur Leioako Auditoriumen. 12 euro.

► **Constelaciones dantza-ikuskitzuna (Aracaladanza).** Urriak 6, 18:00etan. Kultur Leioako Auditoriumen. 5 euro.

MUSIKA

ERANDIO

► **Una noche sin Sabina.** Irailak 27,

21:00etan. Astrabuduko Josu Murueta plazan. Doan.

► **Izargi + Guda dantza + talde sorsesa.** Urriak 5, 21:00etan. Kalezulo gaztetxean.

LEIOA

► **Txopoeta auzoko jaiak.** Irailaren 27tik 29ra: kontzertuak eta erromeriak. Doan.

BESTEAK

GETXO

► **Tailerra: miloitantzia eredu buruzko gogoeta (Joxemi Zumalabe fundazioa).** Irailak 25, 19:00etan. Algortako Abian elkartearen.

SOPELA

► **Hitzaldia: Gotzon Barandiaran.** Errotik nobelari buruz. Irailak 26, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean.

► **Bigarren eskuko artikuluen merkata.** Irailak 28, 10:00etatik 14:00etara. Jauregizar plazan.

PLENTZIA

► **Esaera zaharren txapelketa.** Irailak 28, 11:00etatik aurrera.

► **Ludoteka plazara programa** Irailak 25 eta 30, 17:00etatik 19:00etara. Ontziolan.

GORLIZ

► **Euskaraz olgetan: puzgarriak.** Irailak 28, 12:00etatik 14:00etara. Ibarretan (euria bada, pilotalekuan). Doan.

LEIOA

► **Tailerra: Kantatzeaz gozatu.** Urriak 5. Kultur Leioan. Informazio gehiago: 946 072 578.

URIBE KOSTA

► **UK martxa, Plentziatik Erandiora.** Urriaren 4an 18:00etatik aurrera, eta 5ean egun osoan: hitzaldiak, herri-bazkaria, kontzertuak, e.a.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Busti gaitezen!

Uretan jaialdia egin zuten Getxoko Arriluzeko kaian irailaren 7an, estrainekoz, Getxoaktibatu! programaren barruan. Itsasoagaz lotutako jardueretan parte hartu ahal izan zuten herritarrek, besteak beste: urpekaritza, arrantza, bela, arrauna, kayak edota padel surf ikastaroetan. Ezin genuen aukera galdu emaitza zuri, irakurle, erakusteko, beraz horra hor egunak emon zuena irudit.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Askana baserria

Algortako Portu Zaharrean

Usategi aldapako kantoian zegoen Askana baserria, Basaldua kalean, Askane izenagaz ere ezaguna Algortako Portu Zahar inguruan. Izenak bere kokapena adierazten du, Portu Zahararen alboko amildegian kokatuta zegoen-eta baserria, haitzaren gainean. Hain zuzen, haren azpian zegoen hondartza batek Askanpe izena zeukan, bere kokapena ere adieraziz (hondartza desagertu zen Portu Zaharra bete zutenean). Honako argazkia Pakiko Urretxua algortarrak utzi digu eta 1958-1962 bitartekoa da (garai hartan bete zuten Portu Zaharra, gitxi gorabehera).

Pakiko Urretxuak utzitako argazkia

[berbetan]

Historia ezagutzeak eta jakiteak duen garrantzia nabarmen daiteke Tomas Urzainquiren (Iruña, 1949) berbetatik. Historialari, abokatu eta jurista nafarrak irailaren 18an Algortan eman behar zuen hitzaldiaren harira gauzatu da alkarrizketa, eta besteak beste Nafarroako konkistaz, ordukoaz eta gaur artekoaz, Nafarroako erresumaz, gertatutakoez, estalitako egiez, eginbeharrez, eta argitaratu barri dituen *Continua la irracional conquista* eta *Desconquista e independencia de Navarra* liburuez jardun dugu. Bereak dira esaterako: *La Navarra Maritima*, *Navarra sin Fronteras impuestas*, *Navarra Estado Europeo*, *Soberanía o Subordinación*, *Vasconia en el Siglo XI*, *La "voluntaria" conquista* lanak ere bai.

Tomas Urzainqui

deskonkistarako bidea prestatzen

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argakia: **Goiena Komunikazio Taldea**

—Konkistaren 500. urteurren-ekitaldi-ek orduko eta urteotako zein Nafarroako erresumaren itzalguneak, ez-jakintasuna argitzeko balio izan dute.

—Urteurrenaren harira egindako kontuak pizgarri izan dira historia ezagutarazteko; ezjakintasun handia dagoelako! Horren arrazoia ez da bakarrik jendartearen zelanbaiteko utzikeriagatik edo arduragabekeriagatik izan, baizik eta batez ere eragindako ezjakintasuna izan da. Konkistatzaileei, edo konkistako onuradunei ez zaie historia interesatzen, hobe esanda, historia ezagutu dadila ez zaie interesatzen. Beraz, aurrez aurre dugun gizarteak, geureak, ez du ezagutzen. Horregatik, halako urteurren-eta horri aurre egiteko ondo datozkigu. Ezjakintasuna handi horrek ondorioak eragiten ditu bizi dugun egoera politikoan, ekonomikoan, kulturean eta gizartearengan. Gure nazioa (argi izendatuta), konkistatutako nazioa da; hori esatea eta jakitea oso garrantzitsua da. Itxuraz, ematen duelako ezetz, ia badijadi libre garela... Beraz, konkistatu zuten nazioa dela konturatu behar du/du-


gu, eta konkista horrek jarraitzen duela ere bai! Konkistak ez direlako amaitzen inbasioa gertatzen denean, herri bat indarrez hartzen denean, denborak aurrera egin ahala ere irauten dutelako, denboran mantentzen direlako. Eta gurean, gertaera eta egitate guztiz bidegabea da, gaur arte dirauena. Konkistak prestatu egiten dira, eta Nafarroakoa ere antolatu egin zuten; eta horretan parte-hartze garrantzitsua eliza-botereak izan zuten. Kristautasunak European erabateko garrantzia eta indarra zituela. Elizako hierarkiak, mo-

“Gurea lako nazioek bere historia berriro ezagutzeko beharra dute; bizi dituen arazoei irtenbidea aurkitzeko”

nasterio handiek eta abarrek pentsamendu politikoan ere eragin izugarria zuten. Hala joan ziren konkista prestatzen. Gure nazioa eurentzat ez zen legitimoa, ez zegoen pentsamendu politiko eta kultural “zuzenari”; ostera, eurentzat, zuzena, bidezkoa edo egokia frankoen erreinua ala Gaztelako erresuma zen. Horrez gain,

gureak orduko pentsamendu feudal menderatzailearekin talka egiten zuten, beste kultura juridikoa eta soziala zuten... Horren guztiaren adibide asko ageri da, adib.: Codex Calixtinus ezaguna; sekularko pasarte luzea, neurrigabea, du gure herriko bizilagunak irainduz, kalumniatuz; hain zuzen ere konkistarako bidea prestatzeko asmoz... Segidan, XII. mende amaierarako, ia guztiz burututa izango zutena, mendebaldeko edo itsasaldeko Nafarroaren konkistarekin. Konkistarena oso presente izan behar dugu; kontua ez

da gure lurraldea orain banatuta ikusten dugulako hori naturala dela; ez, hori ez da berezkoa! Modu oso artifizialean konkistek eragindakoa da, konkistatzaileek eragindako gizarte eta lurralde-banaketa-oren ondorio. Eta oso ondo aztertutako eta pentsatutako plangintzaren ondorio izan da. Ezin pentsa liteke Lurralde His-



torikoak deituriko horiek berezkoak, naturalak direnik, ezta pentsatu ere! Hori konkistatzaileek bururatutako banaketaren emaitza da. Horrek eragina izan du esaterako: zatiketa linguistikoan, euskarari, euskalkietan; Koldo Zuazok ondo frogatu bezala; gizartea bera zatikatuago egotea, pentsamendu, ideologia banaketan, guztiz faltsututako historiaren ezagutzan e.a. Gurea lako nazio batek bere historia berriro ezagutzeko beharra du, beren-beregi irtenbidea aurkitzeko bizi dituen arazoei: lurralde-batasuna, batasun linguistikoa, kulturala... ‘Batasun’ horrekin ez dut adierazi nahi “homogenizazioa”, argi lotu dadila.

—**Labur-labur, zeintzuk dira gezur handienak eta egirik estalienak?**

—Joan barri den ikasturtean liburu bi kaleratu ditut: *Continua la irracional conquista*, eta *Desconquista e independencia de Navarra*. Lehenengoan, egun konkistak jarraitzen duela argitzen eta azaltzen dut; 800 urteotan konkistak segitu duela eta irrazionala dela. Konkista ez da ulergarria, justifikagarria, ez! Irrazionala da ez daukako inolako arrazoizko azalpenik, indarkeria eta bortxa goreneko ekintza delako; gainera bortizkeria horrek denboran iraun duela, konkistatutako nazioa den subjektu pasiboarenganako menderatze-bortizkeria iraunkorra, jarraitua, etengabea izan delako. Badirudi konkista orain 800, edo 500 urteko kontua dela... Ez, ez, ez! Deskonkista gertatzen den arte ez da amaituko. Gaurko arduradun politikoei, baita kultur arlokoek ere, oso argi izan behar dute, lehentasunetzotzat jo. Bigarren liburuan, *Desconquista e independencia de Navarra*-n lantzen ditudan gaiak hauek: batetik, konkistatuak, gizarte pasibo bihurtu badira ere, denbora honetan guztian zelanbaitzeko erresistentzia dinamika eta deskonkistatze-borondatea izan dutela adieraztea; izan ere, alde hori ere ezezaguna delako, bitarteko guztiak erabiliz ezkututzen ahalegindu direlako. Konkista militarki egiten den bezala, hezkun-

tzaren, erlijioaren eta abarren bidez ere adimen-gogoak konkistatzen direlako. Zentzu horretan funtsezko gertaerako bat hau da: konkista materiala, militarra gauzatuta zegoela, Fernando Katolikoa hilda (1516), Gaztelako errege eta Alemaniako enperadore Carlos I. agintean zela, egin zuen lehene gauza, 1523an, Nafarroari bere nazio-eliza lapurtzea izan zen. Or-

“Elizaren laguntza barik konkista ez zatekeen gaur dena, ezta hainbeste luzatuko ere; konkista ez da amaitu!”

dura arte Nafarroak izendatzen zituen bere gotzain edo apezpikuak, aurrerantzean Carlos I. goaren gortekoa zen aita santuak Espainiako erregeari Nafarroako Elizaren zaindaritza-eskubidea eman zion. Ordutik eta gaur arteko gotzain guztiak, Eliza-hierarkia izendatu ditu Espainiako Koroak edo erregeek. Nafarroako konkistan Elizaren parte-hartzea eta lankidetzara goi-mailakoa da; Elizaren laguntza barik konkista ez zatekeen izango gaur egun dena, ez zatekeen hainbeste luzatuko. Elizaren parte-hartzeak berebiziko garrantzia izan du konkistatuei helarazi, sinetsarazi dielako aginte barrira, zirela Gaztelako errege edo Espainiako errege, oinperatu behar dutela. Hezkuntza arloan antzera: eskola eta unibertsitate publikoak debekatu eta desagerarazi zituzten, eliza-eskolengatik ordez-

“Jendarte zibilak, herritarrek hartu behar dute bere gain kontu hau; (...) alderdiak pausoa ematera behartu”

katu... Bizilagunen, nafarren, adimena eta ezagutza bereganatzeko, Espainiako monarkiarekiko geroz eta otzanagoak eta esanekoak izan zitezten. Horiek guztiak garrantzi handikoak dira! Erakundeen moldaketa-egokitzea ere badago: independentzia egoeratik, erakunde propioduna, bostere legegile, ejekutibo eta judizial propio-

duna, konstituzio propioduna... Mendekotasun egoerara igaro zen; alde juridiko, politiko eta instituzionaletik erabateko mendekotasun egoerara...

—**Egoerari aurre egiteko ikuspegi barri, irtenbide-proposamenik ematen duzu?**

—Noski. Lehenengo, orain arte ukiezinak ziruditen planteamenduak ahaztu behar dira, esaterako: espainiar nazionalis-

moaren eta euskal nazionalismoaren arteko liskarra soilik delako ideia hori. Egiazki, nazio baten eta konkistatutako bere gizartearen eta nazio-gizarte konkistatzaile baten arteko kontua denean; errealitatea horixe da. Orduan, beste jendarte batzuetan ere, adibiderako katalan edo eskoziarreen, gertatzen ari dena gertatu behar litzateke: jendarte zibila dela, hirirtogoren gehiengoa, herritarrak direla kontua euren gain hartzen dutenak; zutik jarri eta alderdiak-eta independentzia berreskuratzeke pauso erabakitzaileak ematera behar hartzea. Independentzia funtsezkoa da, ez barrik norbanakoentzat, baizik eta kolektibitatearentzat ere bai; estuki lotuta daude biak. Independentia edo burujabe ez den gizarteak bere eskubide asko murriz-

ezin ditu inoren izenean beste gizarte baten hartu, horrek bere interesak lehenituko dituelako beti. Gizarte menderatzaileek, kasurako espainiarra edo frantsesa, interes propioak dituzte, zoritxarrez dominatzaileak: nazio-gizarte menderatuek euren eskubideak erabiltzea edo gauzatzea lor ez dezaten saiatzen direlako, gizarte dominatzailearen ezaugarri-ondarera baldin-

“Askatasun, burujabetza eta independentziarako eskubideak gauzatuz egoera aldatu egin behar da, dugu”

tzatuta egon daitezen saiatzen direlako...

—**Hainbatetan adierazi duzu ez dagoela demokraziarik burujabetasun barik...**

—Argi eta garbi! Burujabetasuna ala mendekotasuna. Nazio bat ez bada erabat burujabea, ez bada bere etorkizunaren jabe, baldintzatzen duen bestelakorik badu, nekez izango da demokratikoa. Demokratikoa da bere buruaren jabe denean; herritarrak burujabe diren heinean demokrazia gauzatu ahal dute. Oso argi egon behar luke kontzeptuak dira; Europar are argiago, gizarte europarra heldutzat eta jantzitzat jotzen denean. Zoritxarrez, Europar euren eskubideak mugatuta dituzten hiritar-multzoak badira; beste gizarte batzuen guztiz mende daudenak. Gaur egun

hala antzeman eta adierazi dute katalanek, eskoziarrek; beste askok esan behar dugu! Uste dut gauzei beste modu desberdin batean begiratzeko garaia dela; orain arte ez bezala... Proposamen barrietarako garaia da. Gizarte zibil osoak edo gehiengoak hartu behar du bere gain, bere esku kontu hau. Batez ere askatasunean oinarritutako ikuspuntua da, norbanako zein

kolektiboarena, gizon-emakumeena; ezin dugulako gizartea eraiki osatzen duten aldeetako bat mendeko egoeran badago. Dominatzaileetaz ere antzekoa esan liteke: espainiar estatua nekez izango da demokratikoa gizarte zehatz batzuk gutxietsita, ezeztatuta, ezkutatuta dituen heinean. Beraz, iruzurra besterik ez da zuzenbide estatua dela esatea; ez dira zuzenak ezta bidezkoak ere, ez dituztelako hainbat gizarteren eskubideak errespetatzen, onartzen.

—**Oso argi duzun beste kontu bat: deskonkista posible da.**

—Erabat sinetsita nago! Ezinezkoa delako beti engainatzen, ezkututzen eta ukatzen ibiltzea; egiaz, kostu handia duelako. Gizarte dominatzaileek menderakuntza ho-

rretan energia asko xahutzen dutelako; momentuz errentagarria izan dakieke... Ostera, momentu batean errentagarritasun hori amaitu egiten da; agian puntu horretara heldu gara. Menderakuntzan jardutea, eta menderatutako gizarte horrengandik probetxua ateratzea, haren aukera ekonomikoak eta lurraldearenak ustiatzea, egunen batean ezinezkoa gertatzen da... Eta batez ere ezinezkoa gertatzen da konkista jasaten duen gizarte hori egoeraz konturatzen eta jabetzen denean, eta jakinarazten eta adierazten duenean. Orduantxe, momentua heldu da...

—**Oraindik ere falta da...**

—Falta da! Baina, hara, Katalunian orain dela hiru urte ez zuten ezta imajinatu ere egingo! Hain arin gertatuko zenik ere ez! Eta gerta daiteke, daiteke baino gertatu behar du gure nazioan ere... Gureak Katalunian edo Eskoziak ez dituzten handicapak (konkistatik ondorioztatutako lurralde zatiketa, horren ondorio ekonomiko, sozial, kultural eta politikoak e.a.) izan arren. Alabaina ezin dugu onartu ez balioetsi zatiketa hori; ezta horrek eragindako ondorioak ere, faltsuak direlako; galera, banaketa, ukatze egoera hori artifizialki sortu eta inposatuak izan direlako. Beraz, askatasunerako, burujabetzarako eta independentziarako ditugun eskubideak gauzatu egoera aldatu egin behar da, dugu. ○

Terminoiei eta sinboloiei dagokienez “nahasmena, ezjakintasuna...”

—**Nafarroa, Vasconia, Euskal Herria.**


—Gai hauetara errespetu handiz hurbildu behar dugu, inor ez mintzeko. Vasconia, erromatarren garaian, Antzinatean (VI-IX. mendeak), asko ageri da, inguruko nazioek (frankoak, bisigodoak, musulmanak) asko erabiltzen zuten. ‘Navarra’: vasconiaren dukeritik, burujabetza politikoaren finkatzearen ondorioz, Iruñeko, Nafarroako erresuma jaio zen; Nafarroa Europa mailan dukerri horren estatu bezala osatzen da. Bilakaera politikoaren aurrerapausoa da, eta nazioartean onarpena du; nazioarteko itunetan mila

urtean Nafarroa subjektu aktibotzat ageri da, konkista ostean ere baina subjektu pasibotzat. ‘Euskal Herria’-k euskararen hizkuntz komunitateari erreferentzia egiten diola esango nuke; guztiz bateragarria da ‘Nafarroa’ terminoarekin, ez dute talkarik egin behar; ‘Nafarroa’-k errealitate juriko-politikoak isla dezake, ‘Euskal Herria’-k hizkuntza-kulturarena.

—**Bestetik, borobil eta marren gorria, kateena, arrano beltzaren banderak.**

—Euskaldunen Estatua irudikatzen nazioartean ezagutzen, aitortzen zen bandera hondo gorridun, karbunkloa (heral-


dikan erabiltzen den terminoa, gurpil forman lore-hostoen antzera jarritako zortzi makila) biribilez loturik armarrira osatzen duena da; XVI. mendean oraindik nagusi erabiltzen zen. Lehenengoetariko gure nazio-ekutu edo armarrira da, zilegizkoena; orain berreskuratzen ari dena. Gero, kateena, frogatuta dago oso berantiarra dela, XVII. mendean zabaldu zen. Azkenik, arrano beltzarena, bi hamarkadaz baino ez zen erabili, Antso VII.a “Azkarra”-ren sinbolo pertsonala zela; gainera, bere agintaldian ere hondo gorriduna ere erabiltzen zen.




Photophobia

Mikel Martin Villacortak egindako argazkiak ekarri ditugu, osterara ere, orriotara. Sopelan bizi bada ere errekaldearra (Bilbo) dugu Martin eta Photophobia izena jarri die irudiei. Dioenez, aspaldi, fotofobia zeukan argazkilari bat ezagutu zuen: *“Zurbila, urduria eta ondo hezitakoa zen. Bere begi ahulakaz egun amaierako argia edota txoko ilunak baliatuz bakarrik egin zitzakeen argazkiak”*. Martinek ere gauza bera egin du argazki-sorta honetan, bere buruari galdetuz: *“A zer tipo jatorra! Zertan ibiliko ete da?”*
Martinen lan gehiago ikus ditzakezu www.mikel-martin.com gunean.

Argazkiak: **Mikel Martin Villacorta**





Galeako fortea eta itsasargia > dorrea barritzen ari dira

Galeako gotorlekua: Bizkaiko ondarearen artean baliotsuenetakoa

Galeako gotorleku ezaguneko dorrea barritzen ari dira hil hauetan, Aranzadi elkartearen ikerketan oinarrituz. Galeako fortea eta itsasargia ondare oso baliotsuak dira, ez Getxori bakarrik dagokionez, baizik eta euskal kosta osoari dagokionez. Bada, ezagut dezagun bere jatorria eta historia.

Galeako eraikin-multzoa aparta da: Getxoko ondarearen artean baliotsuenetakoa, baita Bizkaikoaren artean ere. Horrela ondorioztatzen du Aranzadi zientzia elkarteak 2006an egindako ikerlanak, Alfredo Moraza Barea arkeologoak zuzendutakoa. Izan ere, bai fortea, bai itsasargia, eraikin mota horien “*ale bakarrak dira, XVIII. mendeko gotorlekuen oso hondar gitxi dagoelako EAEn, are gitxiago Galeakoa bezalako egoeran: nahiko ona da eta egindako aldaketek apenas izan dute eraginik eskema orokorrean*”. Hain zuzen ere, Aranzadiren txostenaren gomendioei jarraituz, itsasargiaren dorrea zaharbarritzen ari dira hil hauetan, eta lanok urrian amaitzea espero du Udalak. Forteak inoiz ez zuen parte hartu gerrateetan, baina horien ondorioak jasan zituen, hainbatetan eraitsi eta berreraikita.

Eraikin-multzoak, beraz, eraikuntzamotoa desberdin bi dauzka: batetik fortea (harresia), bestetik itsasargia. Fortea 1742koa da eta gerran defentsarako eraiki zuten, handik Abra ondo kontrolatzen delako. Halere, ikertzaileek uste dute lehendik bazegoela inguruan talaia eta kanoi-bateriaren bat. Joseph Crane Snocg-ek diseinatu zuen eta jatorrian dekagonoa zen, Crane-ren planoen arabera, ez zeuzkan itsasorako egungo bi irtenak (orain dode-



Gotorlekurako sarrera, barrukaldean itsasargiko dorrea ikusten dela

kagonoa da). Harresia lubaki batek inguratzen du, baina orain estalita dago.

Azkar eraiki zuten fortea eta mende osoan egin behar izan zituzten konponketak. Zergatik ez dakigula, ia sorreratik

Fortea eta itsasargia XVIII. mendeko beren motako ale bakarrenetakoa dira

izendatu da Printzearen Gaztelua ere. Aipatu legez, gerrateek ondorioak eragin zituzten gotorlekuan eta bitan berreraiki behar izan zuten: Napoleonen gerretan (1812) eta Lehen Gerra Karlistan (1836 inguruan). Horien ostean, forteak ez du jasan aldaketa nabarmenik.

Harresian kanoi-zuloak daude, egun kanoiirik bakoak. Baina 1773an bazeuden 18 kanoi, 1827an 6 eta beste hiru presta-

tzen ari ziren, baina 1844an ezin erabil zitezkeen bakan batzuk besterik ez ei zeuden. Barruko eraikina ostalaritzarako erabiltzen hasi zirenean, XX. mende erdialdera, hainbat kanoi ipini zituzten, baina apaingarri gisa. Horietatik geratzen zirenak uda hasieran kendu zituzten zaharbarritzeko, baina seguruenez ez dituzte itzuliko; izan ere, bertakoak ez direnez, Aranzadik gomendatu zuen toki egokiago batera eroatea.

Forte barrualdea eta itsasargiak

Fortearen barrualdeak harrizko zorua zeukan eta oraindino kontserbatzen da parte bat. Gainera, hiru eraikin daude: itsasargiarena, hari lotutako bat eta eurretatik banatuta dagoen hirugarren bat. Itsasargiaren dorrea da, hain zuzen ere, zaharbarritzen ari direna, baina ez da jatorrizko faroa. Galeako lehen itsasargia XVIII.



Gotorlekua zerutik ikusita harresiaren forma eta eraikinen kokapena ondo bereiz daitezke

mende amaieran eraiki zuten eta aitzindaria izan zen Bizkaian; izan ere, Donostiako Igeldokoaren ostean, euskal kostako mota bereko bigarren itsasargia izan zen. Haren hondarrak ez da geratzen; bai, ordea, bigarren itsasargiarenak: egungo faroa Francisco Antonio Etxanobek diseinatu zuen eta 1844 inguruan eraiki zuten Espainiako Itsasargien Planaren baitan. Mota horretatik geratzen den ale bakarra da euskal kostan (betiere Igeldokoa salbu, baina hura lehenagokoa dela azaldu dugu). Aranzadiren txostenaren arabera,

Maiatzean kendutako kanoiak apangarri gisa ekarritakoak dira

esatea jatorrian zuriz margotuta zegoela, behintzat dorrea.

Oinplanoa oktagonalean kokatzen da (bulego eta biltegi moduan erabiltzeko egina) eta, hura bezala, Berangoko hareharrizkoa da. Oinplanoak dorreak baino aldaketa gehiago jasan du, baina hobeto kontserbatu da. Halere, dorrearen arazo bera dauka, higadurak eragindakoa. Haren arrazoia ere ikertzen ari dira, izan

ere, eraikinaren hegoaldeak pairatu du higadura eta hori oso arraroa ei da.

Mantendu beharra

Bigarren eraikinaren egoera, barriz, nahiko eskasa ei da: foruzainaren etxebizitza moduan eraiki zen, dorreari lotuta, mende bat beranduago, 1880 aldera: Domin-

go eta Juan Ormaetxea aita-emeak izan ziren lehen farozainak. 1905ean, ordea, erabat utzi zuten egungo itsasargia egindakoan, harik eta Getxoko Udalak bere jabetza lortu arte, 1947an. Hamar urte beranduago ostalaritzarako erabiltzen hasi zen, gitxienez 1975era arte.

Erabilera ludikoak baztertu barik, gotorlekua zaintzea gomendatu dute

Multzoaren hirugarren eraikuntza da barriena eta balio gitxi daukana, eta hark ere aldaketak jasan ditu. Jatorrian kuartel eta biltegia zen, baina zaindariaren etxebizitza moduan ere erabili zuten forteak gerrarako funtzioa galtutakoan. 1950ean eraitsi eta berreraiki zuten, jatorrizkoa baino eraikin txikiagoa eginez.

Aranzadiren gomendioa da ondare baliotsua barritu eta mantentzea. Etorkizunean bestelako erabilera ludikoak izan ditzakeela uste du, betiere gotorlekuaren jatorrasuna gordez; gainera, horretarako ez du aurreikusten ezohiko ahaleginik. Dorrea barritzeagaz batera abiatu da bidea, jarraipenik izango ahal du! ◯

Urrian edo azaroan amaituko dituzte dorrea barritzeko lanak





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Amaren eskuak zineetan

Karmele Jaioren eleberrian oinarritutako filma **Mireia Gabilondok** zuzendu du



Tragikomedia legez aurkeztu dute filma

Aurrestreinaldiren bat egin ostean, Mireia Gabilondok zuzendu duen *Amaren eskuak* filma Donostiako Zinemaldian (Zinemira sailean) aurkeztu dute irailaren 24an. Karmele Jaio (Gasteiz, 1970) kazetariaren eta idazlearen izen bereko nobelan, *Amaren eskuak* (2006, Elkar), oinarritzen da Baleuko produkzio-etxeak ekoitzi duen fikziozko lana. Josu Bilbaok idatzi du gidoia eta, istorioa Gasteizen gertatzen bada ere, lekutzeak Lekeitio, Getaria, Irun, Andoain, Donostia eta Hendaian grabatu dituzte.

Jaioren istorioa, eta horrenbestez filmarenak, hala laburtu dute: "Nereak 35-40 urte ditu; inoiz maite izandako lana baina egun estresaturik daukana, egunkari batean; senar jator eta alaba zoragarria, zeinei ez dien eskaintzen behar luketen arretarik; eta istorio bat iraganen, oroimenetik erauzi nahi lukeena; eta ama ospitaleko ohean lo, inoiz esnatuko den jakin ezinik. Amaren historia ezku-

tuak jakingo ditu Nereak erietxean, eta horren haritik ohartuko da zenbateraino izan daitezkeen ezezagunak geure ondoan dauzkagunak, eta, aldi berean, zenbateraino izan litezkeen berdinak belaunaldi biren arazo eta kezkek, nahiz eta garaiak eta bizimoduak asko aldatu. Bizinabiarren aldeko aldarrikapena dakarkigu ele-

«Hilaren 27tik aurrera Euskal Herriko hiriburuetak zineetan egongo da ikusgai»

berri eder eta hunkigarri honek, bazter guztiak zipriztintzen eta blaitzen dituen itsasoaren enbatak bezala".

Ainara Gurrutxaga, Esther Remiro, Loli Astoreka, Marc Schardan, Naiara Arnedo, Maialen Vega, Amaia Mitxelena, Laia Bernues, Iñaki Font, Vicky Peña eta Aitor Beltran aktore dituen lana tragikomediatzat jo dute eta hilaren 27tik aurrera Euskal Herriko hiriburuetak zine-areto nagusietan ikusi ahalko da. ○

Rockaren izenean...

Hileko **azken aste akabuan** egingo da Sopelan **Inkestas Rock-festibala**



Hogei bat taldek parte hartuko dute jaialdian

Sopelako El Peñon tabernan egingo den Inkestas Rock Festibaleko gitarauak 20 talde ingururen kontzertuak iragarri ditu. Hiru egunez, irailaren 26an, 27an eta 28an hain zuzen ere, egingo da rock-jaialdia eta sarrera doan da.

Arduradunen esanetan, "gutako baten oroimenez" antolatzen den festibalak helburu nagusi bi dauka: alde batetik, bertoko eta inguruko taldeei euren musika ezagutarazteko aukera eskaintzea, eta bestetik rockzaleentzako dagoen eskaintza "urria" zabaltzea.

Ondorengoak dira egongo diren esze-

natoki bien gainean jardungo duten taldeak: Chivo, Sacco!, Boogie Riders, Space Octopus, Memak, Sid, Fetitxe, Hojalatica, Megamilf Derringer, 180 gramos, FCM, Eleven Lies, The End, Cactus, Rusted, Mushroom Caffeine, Peter, Happy Morgue eta DJ Alai.

Rocka jaun eta jabe izango den jaialdiaren egitarau zehatza oraindino ez dute ezagutera emon, hala egunez eguneko emanaldiak eta ordutegiak ezagutu gura dituenak Inkestas Rockeko webgunea bisita lezake datozen egunetan. ○

Info+: www.inkestasrockfestival.com

aurkezpenak > Ahotsenea

Urte urte egindako lanaren ondorioz, Ahotsenea-gunea ekimena musika eta literatura euskaraz jendarteratzeko erakusleho eder bihurtu da Durangoko Azokan. Sortzaileei begirako guneak "espazio bi biltzen ditu: batean sortzaileek, kazetari edota berbalaguna alboan, dagokion urtean argitaratutako lanari buruzko azalpenak eskaintzen dizkiote bertaraten den orori; bestean, urtean plazaratutako liburu zein disko zuzeneko emanaldi bitartez aurkezteko aukera eskaintzen du". Bertan parte hartu gura duten idazle edo musikariek dagoeneko izena emon dezakete (beheko helbidean). Baldintza bi bete beharko dira: euskaraz sortutako lana izatea eta 2013an argitaratutakoa izatea. Aurkezpenak egiteko 30 minutuko tartea izango du bakoitzak, esan barik doa, Durangoko Azokak iraun bitartean egingo direla, hau da, abenduaren 5etik 8ra.

Info+: info@ahotsenea.net

diskoa > Ruper Ordorika

Uda hasieran emon zuen ezagutzera musikari oñatiarrak lan barria udagoienerako plazaratuko zuela. Toots & The Maytals-en jatorrizko konposizioaz Kortatuk egindako "Sarri, Sarri" kantaren bertsioagaz iragarri zuen disko barria... Eta apurka-apurka, tantaka, informazio gehiago zabaltzen dabil. Hala, *Azukre koxkorrik* tributo-albuma izango dela badakigu eta Ruperen hogeita batgarren diskoa izango dena urriaren 4an aurkeztuko dutela.

Info+: www.ruperordorika.com

diskoak

EZ
Herri Oihua
Baga Biga



Barakaldoko boskoteak bigarren diskoa plazaratu du, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak antolatutako iazko Banden Lehia txapelketa irabaztearen ordainetan. Hip Hop/ Rap eta metal doinu-entetan sortutako bederatzik kantek osatzen dute Iker Villa, Iker Aginaga, Aritz Monedero, Mikel Becerra eta Lander Gormedinen lana.

77
Bide Ertzean
Gaztelupeko Hotsak



Bederatzigarren lana kalera-tu barri du Tolosako hirukoteak. Hamabi kantuz osatutakoa eta digipack batean aurkeztu dute. Euren esanetan, gaia hurrengoa: "1977. Euskal Herria. Askatasuna, maitasuna, berdintasuna bizi eta gozatu nahi duen gazteria (...) 40 urteko gau beltzaren ondoren, orduko gazte belaunaldi haren ahalegina ez zen hutsala izan".

Solar Secrets
Capsula
Hotsak / Krian Music



Bilbon lekutzen den argentinarrak taldeak oraindino Tony Visconti ekoizleagaz AEBn grabatu du bederatzigarren lana. Glam eta 70. hamarkadako hard-rockaren doinuak inoiz baino nabariago antzeman daitezkeen diskoak CD, LP edo biniloan zein euskarri digitalean eskura daiteke; European Gaztelupeko Hotsak-ek eta AEBn Krian Music-ek merkaturatuko dute.

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu **%50eko deskontua** izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Bertsopaper-lehiaketa

Balendin Enbeita lehiaketara bertsopaperak bidaltzeko epea zabalik


Bi urtean behin, Balendin Enbeita (Muxika, Bizkaia, 1906-1986) bertsolari eta idazlearen omenez, Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) antolatzen duen bertsopaper-lehiaketara lanak aurkezteko epea urriaren 18an amaituko da. XI. ekitaldia beteko du aurten Balendin Enbeita bertsopaper-lehiaketak eta, ohi legez, edonork parte har dezake, adinaren arabera banatuko diren atal bietako batean (helduenean -19 urtetik gorakoak- ala gazteenean -18 urtera artekoak). Bertsoen gaia, neurria eta doinua libreak dira, eta gura beste bertso-sorta aurkez daitezke.

Horren albotik, besteak beste, ondoak dira parte hartzeko betebeharrak: helduen ataleko parte-hartzaileak gutxienez 8 bertso (gehienez 12) egin beharko

«Urriaren 18a izango da bertso-sortak bidaltzeko azken eguna»

ditu, eta gazteen atalekoak gutxienez 6 (gehienez 10); bertsoek barriak izan beharko dute, hau da, aurretiaz beste inon saritu edo argitaratu bakoak.

Bertso-sortak posta arruntez zein posta elektronikoz igor daitezke. Posta arrunta aukeratuz gero, hau da helbidea: Algortako Bertsolari Eskola (ALBE), Martiko-



Info+: albegetxo@gmail.com / 650 704 385


ena 16, 2. Pisua; 48992 Getxo. Ostera, posta elektronikoa gurago izanez gero, hona: balendinenbeita2013@gmail.com. Bidaltzeko modua edozein dela ere, kontuan hartzekoa da idatzi bi bidali beharko direla: batetik, goitizenagaz sinatutako bertso-sorta, bestetik goitzenaren atzean dagoen parte-hartzailearen datu pertsonalak jasotzen dituenena. Amaitzeko, ALBE GALA-n banatuko dituzte sariak: helduen ataleko irabazlearentzat 900 euro, txapela eta garaikurra, bigarrenarentzat 600 euro eta garaikurra; gazteetako lehenengoarentzat 200 euro, txapela eta garaikurra, bigarrenarentzat 100 euro eta garaikurra. ○

liburuak



Gela bat norberarena
Virginia Wolf
Consonni

Maria Colera Intxaustik itzuli du idazle ingelesaren lan ezagun hau. Emakumeak eta literatura gaiaren gaineko hitzaldi bi daude oinarrian, gogoeta eta aldarrikapen andana, adib.: "emakume idazleek norbere gela izatea, urtean 500 liberako errenta eta pentsatze eta esateko askatasuna".



Ispiluak
Eduardo Galeano
Txalaparta

Kazetari eta idazle uruguaiar ezagunaren *Ispiluak*. *Mundu ia ororen historia*-liburua itzuli du Xabier Alegriak, "itzulpen-lanak ohiko dituen zailtasunei beste batzuk gaineratu dizkiolarik kartzelak". Botereak baztertutako gertakizun, ikuspuntu edo protagonistengan dago jarrita begirada...

[kirola]

Olatz Ortega > arraunlaria

"Aurtengoa, nire bizitzako denboraldirik onena izan da"



Getxoko arraunlariak sasoi onean dauden adibide dugu Olatz Ortega

Algortarra da, baina uda Erreterian igaror du Hibaikagaz arraun egiteko. Horrez gain, Getxoko taldean ere badabil sosak eskola pribatuak ematen irabazten dituen irakasle tituludun honek.

—Denboraldia amaituta, zer sentsazio?
—Nire bizitzako denboraldirik onena izan da: bateletan, Bizkaian lehenengoak eta Euskadin bigarrenak izan gara; aulki mugikorrean, bigarrenak Euskadin; eta traineruan, Euskotren Ligan hirugarren eta Gipuzkoakoan eta Kontxan bigarren lotu gara. Gainera, denetan giro oso ona.
—Eta zelan moldatzen zara talde bitan jarduteko?
—Neguan Getxon egon naiz eta ekainean Hibaikara joaten hasi nintzen. Baina udarako Erreterian nengoan, han etxea jarri zidaten eta uda osoa eman dut han.

—Trainerua osatzeko neska nahikorik ez Getxon?
—Ez, ez gaude neska nahikorik. Nahiz eta Bizkaian talde bat atera den, iaz hara joan eta gustura egon nintzenez aurten bere

errepikatzea pentsatu dut.
—Kirol-udaleku ederrak!
—Kar-kar! Bai, gainera lanean ez nagoez, gauza hauek egiteko aukera izanda aprobetxatu behar dut.
—Krisia eta lanik eza... Gustuko gauza izanda bere, dirurik jasotzen al duzue Hibaikar?
—Normalean ez digute ematen baina orain, Euskotren Ligagaz eta Kontxagaz, diru apur bat jasoko dugu. Baina gustatzen zaigulako ibiltzen gara.

«Uste dut datorren urtean gauza politikak lortuko ditugulako Hibaikagaz»

—Hibaikar fin ibili zarete, baina Zumaiak egin duena...
—Zumaiak egin duena hobetu ezina da! Kar-kar! Iaz ondo ibili ziren eta aurten, denbora gehiago batera ibilita, hobetu egin dira. Halere, Hibaikaren bigarren urtea izateko oso ondo egin dugu eta uste dut datorren urtean gauza politikak lortuko ditugula. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Iker Saitua Idarraga > Reno, Nevada (AEB)

“Askotan esaten den legez: hau *Wild West* da!”

Orain dela hiru urte amaitu zituen Historia ikasketak Iker Saitua Idarraga algortarrak Euskal Herriko Unibertsitatean eta, jarraian, Historia Garaikidean masterra egitea erabaki zuen. Helburua lortuta, barriz, lotzeko asmorik ez eta, doktoretza egitea erabaki zuen: horretarako beka lortu zuen, non eta Renon, Nevadan (AEB), bertako unibertsitatean. Horrela, duela urte eta erdi zeharkatu zuen Ozeano Atlantiko zabala eta oraindino badauka han urte batzuetarako, behintzat doktoretza amaitu bitartean. Kasinoen estatuan, aspertzeko tarterik ez du izango!



Zer bisitatu eta zer ez galdu

Renon kasinoak dira nagusi. Nahiz eta industria honek turista asko erakarri, gauza interesgarriagoak ere bisita daitezke. Hiria bera paraje naturalez inguratuta dago, horien artean Tahoe aintzira nabarmenezkoa da: egunpasa ederra egiteko leku ezin hobea! Bainatzeko, ordea, ez da tokirik aproposena, ura nahiko hotz egoten da-eta urte osoan. Bestalde, Reno hirian *Far West* mitikoaren ondarea agerian dago eta, beraz, ezin bisitatu barik utzi Virginia City; Mark Twain-ek bere bizitzaren pasarte garrantzitsua idatzi zuen bertan.

Janaria

Amerikako Estatu Batuetako bestelako esparruetan legez, janari azkarrek osatzen dute Renoko menua. Ohikoak dira hanburgesak, pizzak eta *hot dogs* delakoak. Bestalde, *steakhouse* delako lekuetan


haragi ona jan daiteke. Izan ere, bertan ganadua da nagusi eta *cowboy* kulturak badauka bere zapora ona.

Harritzeko modukoa

Kasinoak eta horien inguruan sortutako giroa da gehien harritzen duena: esparru guztietan joka daiteke. Aireportuan bertan, hegazkinetik atera eta txanpon-makinak daude edonon. Renoko kasinoek markatzen dute hiriaren erritmoa, baina horrek guztiak dakarren miseria latza ere ikus daiteke kalean.

Kontuz!

Desertutik ibiliz gero kontuz ibili suge, eskorpioi eta krotaloakaz: gitxien espero duzunean edozein ager daiteke aurrean. Azken batean, Mendebalde Urrunaren esparru horrek oraindino mantentzen du bere ingurune basatia; askotan esaten den legez: hau *Wild West* da! ○



Nor da

Nongoa
Algortakoa
Adina
26
Zertan dabil
Doktoretza egiten dabil Renoko unibertsitatean
Ikasketak
Historia ikasi du Euskal Herriko Unibertsitatean
Noiz arte
Urte eta erdi daroa, eta gutxienez beste bi urte eta erdi lotuko da, doktoretza amaitzeko

Non dago

Lurraldea
Nevada estatua, Amerikako Estatu Batuetan (286.367 kilometro koadro)
Hiria
Reno, Carsonetik (Nevadako hiriburua) 42 kilometrora
Azalera
274,2 kilometro koadro
Kokapena
AEB mendebaldean
Biztanleria
225.221 biztanle
Hizkuntza
AEBko Senatuak ingelesa izendatu zuen hizkuntza nazional 2006an
Dirua
Dolar (1 euro = 1,31 dolar)

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.

Mikolasak

Aurreko atalean Galtzagorriak aipatu genituen. Gogoratuko duzunez, taldeka ibiltzen diren izaki txikitxoak zirela esan genuen, beti izakiei laguntzeko prest. Baina ez okertu, taldeka agertzen diren izaki txiki guztiak ez dira beraien bezain onak, ez, Mikolasek ohitura bera dute-eta.

Deabrutxo txikiak dira. Beti taldeka agertzen dira, lau, bost, hamar, ehundaka edo milaka. Indar ikaragarria dute eta eraikitzaile handiak dira. Inork ez daki non bizi diren, eguzkiaren agerpenarekin batera desagertzen baitira.


Zakarrak eta apur bat burugogorrek. Gizakiekin harremanetan jartzen direnean, eraikin paregabea egiteko, beraien hitza betetzen dute, gau bakar batean altxatuz. Hori bai, beti prezio altua eskatzen dute ordainetan.

Beti taldean ibiltzen diren deabrutxo txikiak dira. Hain tamaina txikikoak izateko, indar ikaragarria dute eta eraikitzaile handiak dira. Haien gaitasuna hain da paregabea, laneko material gisa harria erabilita zubi eta eraikin eskerdik altxatzeko gai direla gau bakar batean. Zakarrak eta apur bat burugogorrek dira, eta horrek gizakiengandik urrun mantendu izan ditu beti.

Kondaira

Esaten dutenez, Mikolasak izan ziren zubi ikusgarrienak altxatu zituztenak –besteak beste Andoaingo Azelain eta Kastrexanako aipatu ohi dira-, baita eraikin sinesgaitzenak egin zituztenak ere.

Behin batean, Araia herrian eta inork posible nolatan izan zen argitu gabe, zubi bat agertu zen goizetik gauera Antton Martinez Ilarduiakoaren familiaren base-



Mikolasak. Ilustrazioa: Daniel Castello

rriaren ondoan. Horri esker, bertan bizi zirenak errepidean ibili ahal izan ziren, ordura arte bezala hurbileneko igarobideraino joan beharrik izan gabe, hain zuzen

«Diotenez, Mikolasak izan ziren zubi ikusgarrienak altxatu zituztenak»

ere toki horretatik 10 kilometro baino zerbait gehiagora zegoen zubiraino.

Horretarako, jendeak diotenaren arabera, milaka mikolas bildu ziren. Horrenbeste bildu ziren, inor ez zela gai izan bertaratutakoak zenbatzeko. Eta hala, guzti-guztiak ilaran jarri ziren, lerro luze bat eratuz, eraikuntzaren tokitik materiala har-

tzen zuten harrobi urrun bateraino zihoa hain zuzen ere. Horrela ekarri zuten materiala, aukeratutako harriak banan-banan ekarri eta atsedetik gabe zera esanez: “Ekartzak, Mikolas”. Ondokoak, halaber, zera eratzuten omen zion bitartean: “Otsok, Mikolas”.

Urteak igaro ziren eta behin, Antton, jada adinekoa zela, negarrez hasi zen behar baino gehiago edan zuelako.

-Lagundu egin behar didazue!, eskatzen zuen arren, pertsona zehatz bati zuzendu gabe, begirada galduaz. Bitartean, dardarka, esan zuen igarobideraino behin eta berriro distantzia ibiltzeaz nazkatutik, arima Mikolasei saldu ziela, bizi-tza erraztu zion zubi haren truke. Antza, horrek betiko kondenatu zuen. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON
 Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
 94 430 01 74
 www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx. txakolina
 Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
 C/ Alangobarri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
 94 476 2389
 607 21 89 61



GOSARIAK PINTXOAK
 KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
 Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Txokolate-magdalenak

eguraldia kaskartzen doan honetan...



Oreak astebete iraun dezake hozkailuan, gura dugunean magdalena gehiago egiteko

Portu Zaharrera egun euritsu batean bagoaz, eskaileretan eseri ordez taberna barrura sartzea besterik ez dugu, gozogo eta busti barik lagunakaz berbetan ibiltzeko. Eta horrelako egun baterako, Portu Zaharra tabernakoek eguneroko pintxo prestatu beharrean txokolatezko magdalena hartzeraz gonbidatu gaituzte; kafetan bustita ahoa urtzeko modukoa!

Hasteko, alde batetik esnea epeldu eta beste alde batetik gurina eta txokolatea, batera, urtuko ditugu. Garrantzitsua da temperatura altuegia ez erabiltzea, gero erabiliko ditugunean ez baitute beroegi egon behar. Hauek xuabe-xuabe sutan ditugun bitartean, irina, jalkigarria, azukre mota biak eta gatz apurtxo bat nahastu eta bahetu egingo ditugu, ondo xa-

hu daitezten. Jarraian, astiro-astiro esne epela botako dugu, oreari eragiten diogun bitartean. Eta esne guztia isuri ostean, beste lapikoan ditugun txokolate eta gurin urtuak eta bi arrautzak gehituko dizkiogu apurka loditzen doan oreari. Oraingoan bere, nahasketa egin ahala mogidu egingo dugu dena, gozoki.

Lortu dugun ore honeguz 15 bat magdalena egin genitzake. Horretarako, gurin apur batez moldeak zikinduta laberra sartuko ditugu; aurretik 120 gradutan berotuta, 30 minutu baino ez ditugu behar bazkalosteko kafea gozotzeko. Portu Zaharratik etxera, goza egizue!

Osagaiak: 250 g txokolate, 250 g irin, 100 g azukre beltz, 80 g azukre zuri, 80 g gurin, 250 ml esne, kafe koilarakada bat jalkigarri, 2 arrautza eta gatz apur bat



Croissanterie Briocherie
 MONIE JAIA 1
 48997 Getxo (BIZKAIA)
 CROISSANBERRI-GETXO.BLOGSPOT.COM 94 460 86 48



BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
 Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 - ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxerariak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarera, Jata Mendaj) T. 400 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Ikasle-bizitza bai ona, zenbat opor egun! Zoritxarrez oporrak ere amaizten dira eta lanera bueltatu behar. Ekin gogor lehen egunetik, lan gutzia pilatuko zaizu bestela!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Oraindino badaukazu aukera uretan murgiltzeko eta olatuakaz jolasteko, eguzkiak ez du-eta alde egingo berehala. Baliatu ondo egunak eta lana geroko utzi, euria hasten denerako.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Zu bai azkarra! Beste danak lanera edo klasera bueltatzen direnean hartzen ohi duzu opor. Ingurukoak jeloskor daude eta ez dizute kasurik egingo haserrea pasatu arte.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Jairik jai lotu barik ibili zara uda osoan eta orain jasoko dituzu ondorio latzak, daborduko ez zara-eta arestiko gazte sasoiak. Gabonak arte parranda gehiagorik ez, mesedez!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Hostoak adarretatik jausten diren moduan, udagoiena hasteagaz batera ulea jausten hasi zaizu. Hemendik aurrera motz-motz eroan behar, agure itxura hartu gura ez baduzu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hare epeleko hondartzan daukazu burua oraindino, baina uda amaitu barri da, beraz ernatu! Nagusiari bost zure ametsak, bizkortu eta amaitu txosten hori, faborez!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Asteburu honetan kristoren zorrite izango duzu, baita zuregana hurbiltzen direnek ere. Aukera baliatu zozketetan parte hartzeko eta ligatzeko, haizeta aldeko izango duzu-eta!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Udan diru mordera gastatu duzu eta orain aurreztu behar. Baina ez duzu zertan etxean geratu, ibilaldi politak egin ditzakezu azken egun epelak aprobetxatuz. Zoaz kalera!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Kalean txakur txiki bat topatuko duzu, utzita. Hunkiturik, etxera eroango duzu baina gurasoek argi esango dizute: txakurra ala zu, bietako bat kalera. Beraz, ondo pentsatu erantzuna...

META



(Irailak 17 urriak 16)
Pare bat aste klasean eta daborduko estresatuta? Berehala estutzen zara gero! Hartu arnas eta lanak egiten hasi, banaka-banaka. Ikusiko duzu danetarako denbora izango duzu.

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Ez dakit zer daukazu azken aldian, baina erabat petralduta zabilta. Lagunei errieta besterik ez diezu egiten, hitz goxoak gastatu dituzu, antza. Jarrera aldatu, osteria jai daukazu!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Udagoieneko freskura honetan gura duzun giroan murgildu zara, ezta? Besteak kekaxa eta zu gozo-gozo. Izan ere, bihotz beroa daukanak ez du behar eguzkiaren epeltasun handirik. Segi beti bezain goxo!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Pluralean, gorputz dardarak eta konortea galtzea ezaugarri dituen gaixotasuna. 2. Errepikatuz, gorotza. Metalen arteko nahastura. 3. Bizkaieraz, bezala. Ezti egileak dira intsektu hauek. 4. Biloa. Erreka edo ibai baten gaineko igarobide. Lehenengo bokala. 5. Ez singularra. Oinarrizko edari. 6. Tantaloarean ikur kimikoa. Emakumeen monasterio bateko emakumezko burua. 7. Bokala. Errusiako ibaia. ...-aho, ahotik ahora. 8. Buru estalkia, kapelua. Hunki. 9. Ipar Euskal Herrian, almirantea. Kasik, abantzu. 10. Ipar Euskal Herrian, berri-tsua, hitzontziak.

Goitik behera

1. Pluralean, eguzkiak urtebetean konstelazioetan zehar erazten duen itxurazko zirkulua. 2. Katalanez, zartagina. Sortu zintuena. 3. Iodoaren ikur kimikoa. Zaren hori. Ogi txiki biribil. 4. Musika mota, eskalan seigarrena. Arauera. 5. Hitz, solas, berba. Trebeak, iaioak. 6. Ipar Euskal Herria, arriskua. Gabarra txikia. 7. Arabako mendialdea. Ez eme. 8. Zuhaitz mota. Euskal Herriko Unibertsitatea, baina laburtuta. Bokala. 9. Gipuzkoako udalerria, Urola Kostan. Usoaren haragia. 10. Kokatzera behartuak, ipinraziak.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Non aurkeztu da ArgiHizkiak erakusketa?

- > Aurrekoaren erantzuna: Arriatera (Sopela)
- > Irabazlea: **Itziar Gartzia**

*deitu telefonoz: 944 911 337

Mikolasek zer eraiki eizuten?


- **katedrala**
- **San Mames**
- **zubi handiak**

- > Aurrekoaren erantzuna: Urdulizen
- > Irabazlea: **Nahia Andres Bilbao**

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Zaindu** Osteopatia-Fisioterapia **zaindu** Esku Terapia Zentroa
 Doctor Landa 4, SOPELA.
 Tel: 94 602 67 79

SARIA **berria** **Astakiloen abenturak**
 Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



LOS TRINITARIOS DE ALGORTA. HISTORIA DEL CONVENTO DE LOS TRINITARIOS DE ALGORTA LIBURUTIK HARTUTAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

HIRUKOIZTARREN ELIZA HANDITZEKO BATZORDEA, 1966

Areetako Hikoiztarren eliza handitzeko lanak 1963an hasi eta 1965 aldera amaitu eiz zitezten, aita Carlos Maria Zabalak (argazkian ageri da) bere *Los trinitarios de Algorta. Historia del convento de los trinitarios de Algorta* (1969) liburuan jasotzen duenez. Argazkikoak eraikina zabaltzearen alde egon ziren batzordekideetako eta laguntzaileetako batzuk ziren, horien artean elizgizonak, medikuak, doktoreak eta eliztarrak zeuden. ○

Ezkerritik eskumara: Jacinto Garamendi, Juan Celaya, Andres Sagarna, Francisco Ortega, Carlos M^a Zabala, Santiago Pelaez, Luis Santamaria, Rafael Martin, Eusebio Goiricelaya, Jose Ramon Celaya, Martin Santamaria, Luis Santamaria (semea), Federico Amezaga, Pedro Sustacha, Jose Felix Zalbide, Eukene Gallastegui, Javier Ortega, Candido Zarrabeitia, Juan Ignacio Otazua, Sabin Gallastegui, Javier Martinez Inchausti, Ernesto Sancho, Ezequiel Ruiz, Jesus Sarria eta J. Manuel Esquivil.

OHARRA: 237. zenbakian Inmaculada Villalabeitia beharrea Inmaculada Hernandez da argazkian dagoena.

IRAIA ITURREGI > futbolaria

“Partiduen ostean pika fresko bat edaten dut ia beti”

Testua: **Ander Egiluz Beramendi**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Lagunen laguna.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Medikua gurako nuke izan. Pertsonen osasunaz arduratzen dira eta gustuko dut mundu hori ere.

Eta zertan ez zenuke jardun gura?

Pazientzia gehiegi behar den edozer gauzatan. Ez nuke horretarako balioko.

Aitor dezakezun bizio bat?

Pika fresko bat (garagardoa limoiarekin) partidu ostean. Ia beti suertatzen da, kar-kar.

Eguna ala gaua. Zergatik?

Eguna. Nahiago dut egunez gozatu gauaz ibili baino. Ikasteko soilik gustatzen zait gehiago gaua, hobeto kontzentratzen naizelako. Baina parranda egiteko ere nahiago ditut egunean zehar ospatzen diren jaiak: paellak, pijamak...

Parrandarik politenak non?

Ez dut parranda askorik egiten, baina onenak ezustekoak dira.

Oihukatu duzun azken aldia?

Arriagako balkoian, pregoi egunean.

Zerk ematen dizu beldurra?

Ez dut horretan asko pentsatzen baina egiten dudanean... heriotzak.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?

Nelson Mandela.

Gorroto duzun topikoa?

Futbolariak alperrak eta parrandero hutsak direla.

Nori egingo zenioke elkarrizketa hau?

Rafa Nadali. o

LABURREAN— Aurtengo Aste Nagusiko zorioneko pregoilari eta zoritxarreko txupinera (“Aste Nagusia zer den ulertzen ez duten horientatik”, bere hitzetan) izan baino lehenagotik dator kio Iraia Iturregiri fama. Merezitako fama bere, benetan kirol ibilbide oparoa eta txalogarria baitu Athletic Clubeko atzelari loiztarrak: zuri-gorri legez hiru Superliga irabazi ditu, taldeko kapitaina izatera heldu da eta Athleticeko historian 100 partidu jokatu dituen lehenengo emakumea ere bada. 2004. urtean, 19 urte azpiko Espainiako selekzioagaz Eurokopa lortu zuen eta 2006-2007 denboraldia AEBtako Florida State University-ko futbol taldean jokatu zuen, atzera Lezamara itzuli zen arte. Kirolean jarduteaz gainera, hainbat ikasketak burutu ditu Iturregik: Heziketa Fisikoko lizentziatura (EHU), Senior Class in Sociology (FSU, AEB) eta Kirol Teknikaria.

beharsarea.net

Uribe Kostan lana euskaraz



Umea zaintzeko edo ikastolara eroateko norbait behar duzu?

Hementxe duzu BEHARSAREA.NET



info +:

Behars@rea Bizkaia: www.beharsarea.net



Behars@rea Erandio: www.beharsarea.net/Erandio/



Behars@rea Leioa: www.beharsarea.net/Leioa/



Behars@rea Getxo: www.beharsarea.net/Getxo/

MATRIKULA EPEA
IRAILEAN ZABALIK

MATRÍCULA ABIERTA
EN SEPTIEMBRE

Euskara estiloa

EMAN IZENA GETXOKO EUSKALTEGIETAN!
¡MATRICÚLATE EN LOS EUSKALTEGIS DE GETXO!

Informazioa: www.getxo.net/euskara



GOGORATU! / RECUERDA:
www.getxo.net/euskara